

DAKOTA

Jordi Galceran

Euskarazkoa: Ritxi Lizartza eta Aitzpea Goenaga

Pertsonaiak:

HIPOLITO JARAMA, haginlaria
LAURA, haginlariaren emaztea
GILLERMO MORROI, hortz-protesi-gilea
ERIZAINA, erizaina

(MOTORISTA)
(GIZARTE-LAGUNTZAILEA, ANDREGAIA)
(SENDAGILEA, SENARGAIA)
(GUARDIA ZIBILA, GUARDIA, GERRAKO ELBARRIA)

MOTO BATEN ARGIA HURBILTZEN ARI DA

TRAFIKOKO GUARDIA ZIBIL BATEK, MOTOARI ARGI-BASTOIAZ GELDITZEKO ADIERAZTEN DIO.

MOTOA GELDITU, MOTORISTA JAITSI ETA KASKOA KENTZEN DU.

GUARDIA.- Dokumentazioa, mesedez.

MOTORISTA.- Gabon, guardia jauna.

GUARDIA.- Gabon, motorista jauna.

MOTORISTA.- Zer gertatzen da? Errepidea moztuta dago?

GUARDIA.- Dokumentazioa, mesedez.

MOTORISTA.- Zer da hau, kontrola?

GUARDIA.- Mesedez.

MOTORISTA.- Zer egin dut gaizki? Azkarregi nindoan? Kaskoa jantzita daukat. Eta hemen ez dago semafororik...

GUARDIA.- Dokumentazioa.

MOTORISTA.- (DOKUMENTAZIOA ATERATZEN DU). Jakin nahi nuke zein akats egin dudan (GUARDIARI EMATEN DIO). Agian zuk oso argi duzu, baina nik ez dakit zer egin dudan gaizki.

GUARDIA.- (DOKUMENTUEI BEGIRA). Hau ez da kontrola.

MOTORISTA.- Orduan? Zer da hau?

GUARDIA.- Sentitzen dut baina isuna jarri behar dizut.

MOTORISTA.- Zergatik?

GUARDIA.- Nere eginbeharra da.

MOTORISTA.- Ez dut duda egiten; baina zuk, zirkulazio-arauegia errespetatzen ez duena zigortu behar duzu. Eta nik ez dut ezer egin!

GUARDIA.- (SALAKETA IDATZIZ). Ez al dakizu zein arau ez duzun gorde?

MOTORISTA.- Ez.

GUARDIA.- Zer pentsatu behar dut, ez dakizula zer egin duzun?

MOTORISTA.- Ez dakit! Nola esan behar dizut?

GUARDIA.- (IPURDIARI BEGIRATZEN DIO, MATRIKULA BALITZ BEZALA). Nafarra zara?

MOTORISTA.- Ez, gipuzkoarra, Tolosakoa, baina Iruñean bizi naiz.

GUARDIA.- Orduan jakingo duzu zein den Gilermo Urtsuakoa.

MOTORISTA.- Presaka nabil. Nere emaztea erditzekotan dago. Ez nago horrelako kontuetarako...

GUARDIA.- Salaketa sinatu nahi duzu?

MOTORISTA.- Ez dut ezer sinatuko.

GUARDIA.- Nahi duzun bezala (SALAKETAREN KOPIA BAT EMATEN DIO).

MOTORISTA.- (IRAKURRIZ) Zirkulazio-kodearen 345. artikulua, f atala. Zer esan nahi du honek?

GUARDIA.- Ez duzu zirkulazio-kodea ezagutzen?

MOTORISTA.- Bai, baina ez buruz.

GUARDIA.- Badakizu horregatik gidatzeko baimena galdu dezakezula?

MOTORISTA.- Noiztik da beharrezkoa zirkulazio-kodea buruz jakitea?

GUARDIA.- Horretarako egiten dira test batzuk, gidatzeko baimena eman baino lehen.

MOTORISTA.- Baina ez da beharrezkoa artikulua bakoitza hitzez hitz jakitea.

GUARDIA.- Onartuko duzu legea ez ezagutzea ez dela arrazoia behar bezala ez betetzeko. Salaketarekin ados ez bazaude, errekurtsio bat jar dezakezu.

MOTORISTA.- Nola jakingo dut ados nagoen ala ez, salaketaren arrazoia ezagutu gabe.

GUARDIA.- Inprimakiaren atzealdean adierazten da.

MOTORISTA.- Hor adierazten da? (BEGIRATU EGITEN DU)

GUARDIA.- Errekurtsoa aurkezteko jarraitu beharreko urratsak azaltzen dira.

MOTORISTA.- Bost axola niri inprimakiak dioena.

GUARDIA.- Jendeak pentsatzen du isun bakoitzeko hainbat kobratzen dugula, baina ez da egia, benetan.

MOTORISTA.- Ederki, nahi duzuna. 345 artikulua f atalak zer dioen begiratu eta errekurtsioa jarriko dut.

GUARDIA.- Zure eskubidea da. Gabon, eta gidatu arretaz.

MOTORISTA.- (PAZIENTZIARIK EZ) beti jokutzen dut arretaz. Arretaz gidatzen dut motoa. Eta kodearen arau guztiak errespetatzen ditut.

GUARDIA.- Denak ez.

MOTORISTA.- Denak.

GUARDIA.- 345, f... (SALAKETAN JARTZEN DUENA ERAKUTSIZ) Hortxe agertzen da.

MOTORISTA.- Nitaz barre egiten ari zara, ala?

GUARDIA.- Ez dut horretarako baimenik. Errespetuz jokatu behar dut zurekin. Baina, niregatik balitz...

MOTORISTA.- Zuregatik balitz... zer?

GUARDIA.- Zintzo jokatuko dut zurekin. Zortzi urte nituenean, gure aitak Ebroren iturburua Ikustera eraman ninduen, Fontibarrera. Izugarria zen. Holako ur-txorrotada sortzen zen harkaitz batetik. Geldiezina. Irudi hori buruan gorde dut. lazko udan hara eraman nuen semea. Eta hara iritsi ginenean, telebistan ikusi zuela esan zidan.

MOTORISTA.- Zer?

GUARDIA.- Konturatzen al zara? Dagoeneko aita batek ez dauka semea harrituta uzteko aukera ere. Neretzat oso tristea izan zen... Zure lehen semea da?

MOTORISTA.- Bai.

GUARDIA.- Oso zaila da aita izatea. Seme-alabek eredutzat hartzen gaituzte.

MOTORISTA.- Banoa.

GUARDIA.- Bidaia ona izan, eta arretaz ibili eskuinera egiten duen lehen bihurgunean.

MOTORISTA.- Zer gertatzen zaio eskuinera egiten duen lehen bihurguneari?

GUARDIA.- Eskuinera egiten duen lehen bihurgunea. Oso arriskutsua da. Han hildakoak izan dira.

MOTORISTA.- Arretaz ibiliko naiz.

GUARDIA.- Batzuetan arretaz ibiltzea ez da nahikoa izaten. Neronek ere, nahiz eta aspalditik ezagutu, orain egun batzuk irristatu egin nintzen bertan. Conducción temeraria.

MOTORISTA.- Zer?

GUARDIA.- Conducción temeraria. Horregatik salatu zaitut.

MOTORISTA.- Conducción temeraria, nik?

GUARDIA.- Bihurgune hori oso poliki hartu behar da.

MOTORISTA.- Ze bihurgune?

GUARDIA.- Lehenengoa eskuinera. Ez duzu ikusten? Azkarregi hartu duzu?

MOTORISTA.- Non?

GUARDIA.- (ESKUAZ ADIERAZIZ) Bihurgunean.

MOTORISTA.- Salatu egin nauzu bihurgune hori azkarregi hartu dudalako?

GUARDIA.- Nere eginbeharra da.

MOTORISTA.- Beraz, esaten ari zara salatu egin nauzula, bihurgune hartan azkarregi joateagatik eta oraindik ez naiz bihurgunera iritsi?

GUARDIA.- Ederki dakizu azkarregi pasatu zarela. Bihurgune hori ezin da 40tik gora hartu. Arreta handiagoa behar zenuke. Aita izatekotan zaude.

MOTORISTA.- (BERE ONETIK ATERATA) Bihurgunea han dago. Gu hemen gaude. Ezin didazu isunik jarri bihurgunera iritsi baino lehen.

GUARDIA.- Salaketaren benetako helburua prebentzioa da. Gu errepidean egoten gara istripurik ez gertatzeko. Zure familiak eskertuko dit. Ba al dakizu nolakoa izan daitekeen umezurtz baten bizimodua?

MOTORISTA.- Sartzazu isuna ipurtzulotik. (SALAKETAREN INPRIMAKIA ATERA, ZIMURTU ETA BOTA EGITEN DU)

GUARDIA.- Bai, bai, txikitu. Nik nere eginbeharra bete dut. Zu burugabea bazara... allakuidaos!

MOTORISTA.- Popatik!!

GUARDIA.- Paper puska hori hartu eta ipurtzulotik supositorio baten moduan sartuko dudala pentsatzen baduzu... Ez dut egingo.

MOTORISTA.- Zoaz pikutara. Seko jota zaude. Zu Errepidean arriskutsua zara. Zuri kriston zigorra ezartzea lortuko dut.

GUARDIA.- Ez, hori ez.

MOTORISTA.- Zu errepideetatik urruntzea lortuko dut. Eta espediente bat irekiko dizute.

GUARDIA.- Ez, espediente bat ez. Nere semearen janaria da.

MOTORISTA.- Nere eginbeharra da. Denok ditugu eginbeharrak.

GUARDIA.- (TONTOTUTA, MOTORISTA GELDITZEN SAIATZEN DA) Zure onerako egin dut. Nere eginbeharra istripuen prebentzioa da. Ezin duzu nere aurka espediente bat inkoatzea eskatu nere eginbeharra betetzeagatik. Ederki dakizu nik zu ez gelditzekotan, bihurgune horretan abiadura handiegian sartuko zinela.

MOTORISTA.- Bazenuen ni gelditzea, baina ez zenidan isuna jarri beharrik.

GUARDIA.- Nere eginbeharra da. Ezin duzu... (ISUNA LURRETIK JASOZ). Nahi baduzu, ipurtzulotik sartuko dut, baina ez idazu...

MOTORISTA.- Ala, gabona izan.

GUARDIA.- Ez dizut utziko niri kalte egiten.

MOTORISTA.- Ala, zoaz lotara, ea zepelina pasatzen zaizun.

GUARDIAK PISTOLA ATERA ETA APUNTATU EGITEN DIO.

GUARDIA.- Jarri belauniko eta makurtu burua.

MOTORISTA.- Zer egin nahi duzu pistola horrekin? Seko jota zaude.

GUARDIA.- Makurtu burua.

MOTORISTA.- Ez dut ezer makurtuko!

GUARDIA.- Makurtu...

GUARDIAK MOTORISTAREN BURURA EGITEN DU TIRO. MOTORISTA LURRERA ERORTZEN DA, HILDA. GUARDIAK ARRASTAKA ERAMATEN DU ESZENAREN ERDIAN IKUSLEEI BIZKARRA EMATEN UTZI ARTE, BURUA AURRERANTZ ERORITA. ARAKATU ETA POLTSIKOTIK DOKUMENTAZIOA KENTZEN DIO

GUARDIA JOAN EGITEN DA.

PAUSA.

GIZARTE LAGUNTZAILEA BESTALDETIK SARTU ETA HILDA DAGOEN MOTORISTARENGANA HURBILTZEN DA.

LAGUNTZAILEA.- Buenas Noches. (MOTORISTAK GELDIK JARRAITZEN DU). Estoy aquí para informarte que no muy lejos hay una institución del ayuntamiento donde puedes pasar la noche. Estarás más cómodo y podrás cenar. Aquí en la calle puedes coger un resfriado. En esta institución podrás ducharte y dormir en una cama como Dios manda. Soy asistente social y sé muy bien lo que me digo. ¡Oye! (BERE BURUARI) A ze lan nazkagarria!

GIZARTE-LAGUNTZAILEAK KOLPE BAT EMATEN DIO BIZKARREAN ETA MOTORISTA ALBO BATERA ERORTZEN DA. LURREAN ETZANDA GERATZEN DA.

LAGUNTZAILEA.- Perdona que insista, pero si no colaboras tendré que llamar a la Policía Municipal para que te acompañe al albergue. No es bueno para ti estar en la calle. Mi obligación es dar parte. Yo te comprendo, sé lo que es estar sólo en la vida, pero no debes tirar la toalla. Siempre hay una esperanza. La bebida no es la respuesta. ¿Me oyes? ¿Comprendes lo que te digo? ¿Entiendes el español? (BERE BURUARI) Estos moros son todos iguales. Yo no puedo estar todo el día pendiente de ti.

GIZARTE-LAGUNTZAILEAK OSTIKADA BAT EMATEN DIO.

MOTORISTA.- (OSTIKADAREN MINAREN ERAGINEZ ERREAKZIONATUZ) Astakirtena!

LAGUNTZAILEA.- Des-pier-ta po-bre-te.

MOTORISTA.- Zoaz pikutara.

LAGUNTZAILEA.- Zer?

MOTORISTA.- Pikutara!

LAGUNTZAILEA.- Esan berriz.

MOTORISTA.- Pikutara!

LAGUNTZAILEA.- Euskalduna zara?

MOTORISTA.- Hilda nago.

LAGUNTZAILEA.- Uy, barkatu.

MOTORISTA.- Barkatuta zaude.

LAGUNTZAILEA.- Sekula ez zaitut ikusi auzo honetan. Arazorik al duzu?

MOTORISTA.- (IRONIKOKI) Mercedes a hondatu zait eta txoferrak tailerrera eramandu. Bere zain nago.

LAGUNTZAILEA.- Ah, tira, a ze zorte txarra.

MOTORISTA.- Tabakorik?.

LAGUNTZAILEA.- Zer?

MOTORISTA.- Tabakorik duzu?

LAGUNTZAILEA.- Ez dut erretzen.

MOTORISTA.- Nik ere ez, baina nere emaztea erditzekotan dago. Ulertzen duzu?

LAGUNTZAILEA.- Hau poza! Zorionak!

MOTORISTA.- Buruan min handia daukat.

MOTORISTA LUZATU ETA LO GERATZEN DA.

LAGUNTZAILEA.- Tu mujer pariendo y tú aquí, ebrio ¡Qué vergüenza! (MOTORISTAK EZ DU ERREAKZIONATZEN) ¡Eh, degenerado! (KOLPE BAT EMATEN DIO).

MOTORISTA.- (ESNATUZ) Zu burutik jota zaude.

LAGUNTZAILEA.- Ha-bla más al-to, po-bre-te.

MOTORISTA.- Zergatik bereizten dituzu silabak?

LAGUNTZAILEA.- Barka ezazu, pentsatu dut...

MOTORISTA.- Zer?

LAGUNTZAILEA.- Ez... Horrela ikusita pentsatu dut...

MOTORISTA.- Zer?

LAGUNTZAILEA.- Mairua zinela.

MOTORISTA.- Popatik.

LAGUNTZAILEA.- Ez duzu niri horrela hitz egiteko eskubidea. Nik lagundu besterik ez dut nahi.

MOTORISTA.- (ALTXATU EGITEN DA) Ba al da telefonorik?

LAGUNTZAILEA.- Horrek ez ditu zure arazoak konponduko. Izan zaitetz errealista.

MOTORISTA.- Nik ez dut arazorik.

LAGUNTZAILEA.- De acuerdo, me voy... Yo no puedo estar todo el día pendiente de ti. (GIZARTE LAGUNTZAILEA ABIATU EGITEN DA)... Pero estarías mucho mejor en una institución... (ESZENATIK ATERATZEN DA).

SENDAGILEA SARTZEN DA

SENDAGILEA.- Barkatu, laguntzarik behar duzu? Sendagilea naiz.

MOTORISTA.- Bai, buruan tiro bat jo didatela uste dut. Hementxe.

SENDAGILEA.- Oh, sentitzen dut, ginekologoa naiz (JOATEKO IMINTZIOA EGITEN DU)

MOTORISTA.- (BESOTIK HELTZEN DIO, JOATEA ERAGOTZIZ). A ze zorte ona. Nere emaztea umea izatekotan dago. Honezkero jaioko zen.

SENDAGILEA.- Jaio baldin bada, zuk pediatra behar duzu. Goimailako bat aholkatuko dizut. Nere koinatua da, baina hori ez da arazoa izango (LIBRETA BAT ATERA ETA IDAZTEN HASTEN DA). Tiroa buruan... Hori oso larria da. Zaindu egin beharko duzu. Nik beti esaten dut, gogo betez bizi behar da, ze edozein momentutan... pum, tiroa buruan. Hemen dituzu helbidea eta telefonoa. (ORRIA LIBRETATIK KENDU ETA EMAN EGITEN DIO)

MOTORISTA.- Eskerrik asko.

SENDAGILEA.- (BERRIZ ERE JOAN NAHIAN). Atsegina izan da.

MOTORISTA.- Barka ezazu.

SENDAGILEA.- Zer?

MOTORISTA.- Non gaude?

SENDAGILEA.- Hemen.

MOTORISTA.- Eta non dago hemen?

SENDAGILEA.- Euskadin.

MOTORISTA.- Eta zehatzago?

SENDAGILEA.- Galdetu, nahi baduzu, non dauden tronpak, zer den obario bat, non sortzen den baginako isuria... baina ez eskatu beste ezer zehatzago esateko. Zer nahi duzu? Sendabide-akats batengatik salatuko nauzu? Kalteordain bat nahi duzu? Lehen ere esan dizut ez dela nere espezialitatea.

SENDAGILEA BADOA.

GUARDIA ZIBILEKO GUARDIA SARTZEN DA BERRIRO.

GUARDIA.- Sentitzen dut, baina salatu egin behar zaitut.

MOTORISTA.- Zer?

GUARDIA.- Ez duzu kaskorik jantzi. Ez duzu hori ukatuko, ezta?

MOTORISTA.- Zuk tiroa jo didazu.

GUARDIA.- Betiko aitzakia. (IMITATUZ) "Zuk tiroa jo didazu". Dokumentazioa, mesedez.

MOTORISTA.- Telefonoz deitu nahi dut.

GUARDIA.- Ez zaude atxilotuta; beraz, ez duzu eskubiderik ez abokatu izateko, ezta isilik egoteko ere, eta are gutxiago dei bat egiteko. Ulertu al dituzu ondo zure eskubide guztiak? Estatu Batuak herri handia da, sinistuidazu.

MOTORISTAK PISTOLA KENTZEN DIO.

MOTORISTA.- Eta orain zer?

GUARDIA.- Dei bat... Zeini deitu nahi diozu? (SENDAGILEAK LEHEN EMANDAKO PAPERA -ARTEAN ESKUAN ZUENA- KENTZEN DIO) Pediatra baten telefonoa besterik ez duzu. Zer nahi duzu? Semearentzat ordua eskatu? Ba ez da beharrezkoa. Zure semea jaiotzen ari zela hil da.

MOTORISTA.- (PISTOLAZ APUNTATUZ) Zer esan duzu?

GUARDIA.- Dokumentazioa mesedez.

MOTORISTA.- Zer esan duzu nere semeaz?

GIZARTE LAGUNTZAILEA SARTZEN DA

LAGUNTZAILEA.- Arazorik, guardia jauna?

GUARDIA.- Motorista honek ez dit dokumentazioa eman nahi.

MOTORISTA.- Oraintxe emango dizut dokumentazio madarikatua (POLTSIKOETAN BILATUZ) Ez dut aurkitzen.

GUARDIA.- Ez duzu dokumentaziorik?

LAGUNTZAILEA.- Ziria sartzen ari zaizu. Ez da motorista. (MOTO-MOTORISTARI AURRE EGINEZ) Ez al da egia Mercedes baten jabe zarela eta zure txoferrak tailerrera eraman duela? Po-bre-te.

MOTORISTA.- (EZ DAKI ZEINI APUNTATU PISTOLAZ) Ez.

GUARDIA.- Non dago Mercedesaren dokumentazioa?

SENDAGILEA SARTZEN DA

SENDAGILEA.- Adixkidea! Zure semea hil egin da. Arnasa hartzeko arazoak.

GUARDIA.- Esan dizut.

SENDAGILEA.- Azken orduko arazoak direla eta, berari buruz hitz egiterakoan, "gorpua" esan beharrean gaude.

GUARDIA.- Sentitzen dut, benetan, baina sinistuidazu, oso zaila da aita izatea...

LAGUNTZAILEA.- Udalak instituzioak ditu zu bezalako jendearentzat.

GUARDIA.- Seme-alabek eredutzat hartzen gaituzte.

LAGUNTZAILEA.- Gaua bertan pasatu eta dutxa bat har dezakezu.

SENDAGILEA.- Horixe da egin dezakezun gauzarik onena.

LAGUNTZAILEA.- Beno, eta afariarekin baso bat ardo nahi baduzu, ez dago arazorik. Zigarro bat?

MOTO-MOTORISTAK GUARDIARI EMATEN DIO PISTOLA, LURREAN ESERI ETA ZORABIATU EGITEN DA.

GUARDIA.- Ez ukitu.

SENDAGILEA.- Laguntzarik nahi? Sendagilea naiz.

GUARDIA.- Zergatik ez zuen kaskoa jantzita?

LAGUNTZAILEA.- Kaskoa han dago. Kolpearen eraginez eroriko zen.

SENDAGILEA.- Berriz ere esango dizut: Laguntzarik nahi? Sendagilea naiz.

GUARDIA.- Motoa behean dago, amildegian.

SENDAGILEA.- Sendagilea naiz, ez mekanikoa.

LAGUNTZAILEA.- Anbulantziari deitu diozue?

GUARDIA.- Horixe egin dut lehenengo gauza. Irratia daukat.

SENDAGILEA.- Bitartean hara eramango dugu.

GUARDIA.- Zergatik?

SENDAGILEA.- Sendagilea naizelako. Erabaki bat hartu behar da.

HIRUREN ARTEAN ALTXATU ETA ERITETXEETAKO OHE BATERA ERAMATEN DUTE.

GUARDIA.- (OHERA DARAMATEN BITARTEAN) Bihurgune hori oso arriskutsua da. Gidari guztiek abiadura handiegian hartzen dute.

OHEAN UZTEN DUTE. MOTORISTA AMESKAIZTOAK IZATEN HASTEN DA

LAGUNTZAILEA.- Hemen askoz hobeto egongo zara. Lo egitea komeni zaizu.

GUARDIA.- Eskuinera egiten duen lehen bihurgunea. Oso arriskutsua da. Gidari guztiek abiadura handiegian hartzen dute. Atestatua betetzera noa.

GUARDIA BADOA.

SENDAGILEAK GIZARTE LAGUNTZAILEA BESOTIK HARTU ETA BADOA.

SENDAGILEA.- Gorabehera horiek guztiak gertatu eta gero, logikoa da ameskaiztoak izatea. Gaixo bat koma egoeran egon denean, betikoa... Giro lasaia. Erabateko atsedena. Ez du besterik behar. Izan konfidantza. Sendatuko da. Esnatzen denean, jantzi eta etxera. Aste pare bat eta lixto!

LAGUNTZAILEA.- Eskerrik asko, benetan!

SENDAGILEA.- Eutsi, emakumea, eutsi. Badakit oso gogorra dela senar-emazteen artean ere gizarte-laguntzaile izatea.

SENDAGILEA BADOA.

HIPOLITO (MOTORISTAREN IZENA DA) ESNATU EGITEN DA

HIPOLITO.- Telefono bat. Deitu egin behar dut...

LAURA (EMAZTEAREN IZENA -LAGUNTZAILEA-) OHERA HURBILTZEN DA.

LAURA.- Ez duzu inora deitu behar. Hemen nago.

HIPOLITO.- Laura....?

LAURA.- Bai, ni naiz.

HIPOLITO.- Ametsetan ari nintzen...

LAURA.- Lasai.

HIPOLITO.- Guardia Zibil batek istripua izan nuen lekuan bertan gelditu eta isuna jarri zidan. Ondoren burura tiro egin zidan. Zu ere agertzen zinen. Gizarte-laguntzailea zinen- Silabak bereizten zenituen.

LAURA.- Ameskaizto bat izan duzu.

HIPOLITO.- Bai, hala izango da. Ze ordu da?

LAURA.- Hamarrak.

HIPOLITO.- Gehiegi egiten dut lo.

LAURA.- Sendagileak esan du etxera joateko moduan zaudela.

HIPOLITO.- Bai? Noiz...?

LAURA.- Oraintxe bertan. Eta aste pare batean lanean hasteko moduan egongo zara.

HIPOLITO.- Lanean hasi... Oraintxe bertan joan naiteke?

LAURA.- Oraintxe bertan.

HIPOLITO.- Bi hilabete hemen giltzapetuta... Ez dago gaizki.

LAURA.- Beste berri on bat daukat. Baina ez nizun esan nahi hobeto egon arte.

HIPOLITO.- Hobeto nago. Sendagileak esan du.

LAURA.- Ez dakit. Agian berri gehiegi batera.

HIPOLITO.- Esan...

ETENA

LAURA.- Haurdun nago.

HIPOLITO.- Zer?

LAURA.- Orain bi hilabete. Istripua izan zen egun berean utziko ninduzun haurdun.

HIPOLITO.- Ez dakit zer esan... Zoragarria da. Eseri, eseri. Gaixoa. Ze bakarrik egongo zinen.

LAURA.- Maite zaitut.

HIPOLITO.- Nik ere bai. Izugarri.

LAURA.- Nik, horrela (TAMAINA HANDIA ADIERAZTEKO KEINUA EGITEN DU)

HIPOLITO.- Nik... (KEINU IZUGARRIA EGITEN DU).

ELKARRI BEGIRATZEN DIOTE. ZORIONTSUAK DIRA. MUSU EMATEN DIOTE ELKARRI.

LAURA.- Hemendik irteteko paperak betetzera noa. Tira, jantzi.

LAURA IRTEN EGITEN DA. HIPOLITO OHETIK JAIKITZEN DA.

HIPOLITO.- (IKUSLEEI) Gehien desiatzen genuena seme bat izatea zen. Normala denez, nik ez nion ezer esan. Nola esango nion nere ametseko guardiazibilak eta ginekologoak kontatu zidatenez, semea erditzeko garaian hilko zela? Horrelakorik ezin da esan. Zazpi hilabete eta hamar egun beranduago, betiko bizimodua egiten ari nintzen. Istripuaren ondorioez osatu nintzen eta nere emaztea konplituta zegoen. Egun hartan, nik Iruñetik kanpora joan egin behar izan nuen eta gasolindegia batetik deitu nion. Ez zen batere atsegina izan bakarrik uztea. (TELEFONOA HARTU ETA ZENBAKI BAT MARKATZEN HASTEN DA). Bartzelonan izan zen kongresu batetik bueltatzen ari nintzen. Joan-etorria egun berean. Jorratu genuen gaia, "Gingivitisa sintoma moduan". Sendagile estomatologoa naiz. Haginlaria. Antolatzailea laguna nuen eta ezin izan nion ezetzik esan. Bizitzan zehar izaten ditugun konpromezuak dira horiek. (AURIKULARRA BELARRI ONDOAN JARRIZ). Nere amaginarrebak telefonozenbaki bat utzi zuen gure erantzungailuan. (ZENBAKIA PAPER BATEAN APUNTATUZ). Horrek susmo txarra eman zidan. Zergatik utziko ote zuen nere amaginarrebak telefonozenbaki bat nere etxeko erantzungailuan? (BERRIZ ERE DEIA EGITEN DU, APUNTATU DUEN ZENBAKIARI BEGIRA. AURIKULARRA ESTALIZ, IKUSLEEI) Ospitale bat da. (AURIKULARRA LIBRE UZTEN DU. TELEFONOZ HASTEN DA). Barkatu, Hipolito Jarama naiz. Horra deitzeko abisua eman didate. (UNE BATEZ ENTZUTEN GERATZEN DA. AURIKULARRA ESTALIZ, IKUSLEEI). Nere emaztea ingresaturik dago. Berarekin jarri naute (ENTZUTEN ARI DA). Nere amaginarreba da. (AURIKULARRA LIBRE UZTEN DU. TELEFONOZ, ESPAINIERAZ) Hola, señora Carmen, soy Hipólito... ¿Por qué llora? ¿Qué ha ocurrido? (UNE BATEZ ENTZUTEN GERATZEN DA ETA TELEFONOA ESEKITZEN DU) Ni Binbodíko gasolindegian nengoen, Monblancetik gertu eta Carmenek, nere amaginarrebak, umea jaio zela esan zidan, baina, "cuando tuvo que respirar no le salió, pobrete". Nik oraindik lauhun kilometrotik gora egin behar nituen Iruñeraino. Lauhun kilometro eta esaldi bat buruan: "cuando tuvo que respirar no le salió, pobrete"... Ibilbidean pentsatzeko astia izan nuen. Lehenik eta behin ospitaleko ametsa etorri zitzaidan burura. Gogoratzen hasi nintzen, adibidez, ametseko sendagile ginekologoak gizarte-laguntzaileari ospitaletik joatea nuela esan ziola; eta esnatu nintzenean, Laurak horixe bera esan zidan. Zazpi hilabete haietan izan nituen beste ametsak ere ekarri nituen gogora. Kontu arruntak. Jaki-mota bat

agertzen zen nere ametsetan eta hurrengo egunean bazkaltzeko jartzen zidaten. Kopuru zehatz bat ametsetan agertzen bazen, taxi bat hartzerakoan, diru-kopuru horixe bera ordaindu behar nuen. Egun batean gizon batek ahotik odola botatzen zuela amestu nuen eta hurrengo egunean betiko bezero bati ebaki bat egin nion mingainean... Egia esan, ospitalerako bidean, hildako semea ikustera nindoala, Zaragozaren parean argia ikusi nuen, errebelazio bat izan zen. Zerak... Kasualitate horiek guztiak, ordurarte nik aintzakotzat hartu ez nituen amets iragarleak ziren. Nere semearen heriotzak dena argitu zidan. "Zure semea hil egin da. Arnasa hartzeko arazoak", esan zidan sendagileak ospitaleko ametsean; nere amaginarrebak, "cuando tuvo que respirar no le salió, pobrete" esan zidan... Ospitaleko ametsak hasiera eman zien gaur egun oraindik ere izaten ditudan iragarpenei. Seguruenik moto-istripu hartan buruan jaso nuen kolpearen eraginez izango da, baina hori ezin da erabat ziurtatu. Teoria batzuen arabera, jende guztiak izaten ditu iragarpenak, eta buruhezurreko puntu zehatz batean emandako kolpe batek, ordurarte erabiltzen ez ziren burmuineko gune batzuk piztu ditzake... Teoria asko daude... Pixkanaka-pixkanaka hasiko gara. Bartzelonatik autoz egin nuen bidaiaria hartan izan nituen sentsazioez hitz egiten jarraitu nahi dut. Izan ere, pertsona askok pentsatzen dute medikuntzan ari garenok ezagutzen ditugula jendea hiltzearen arrazoiak, baina ez da egia. Pertsona bat arnasketako gutxiegitasunagatik, gutxiegitasun koronarioagatik edo linfoma batengatik hil dela esatea ez da arrazoi bat ematea. Ez du heriotza ulertarazten. Horregatik aukeratu nuen estomatologiako espezialitatea. Oso zaila zen gaixoak hiltzea. Nere eskuetan, esan nahi dut. Horrela, ez nituen eman beharko neronek ere ez nituen azalpenak. Erraz uler daiteke bidaiaria hartan oso bakarrik sentitu nintzela. Nik ez dut sinesmen erlijiosorik. Ez nuen zeri heldu. Gustura hitz egingo nuen norbaitekin. Topatu nuen lehenengo pertsona peajeko kobratzailea izan zen. Begiratu ere egin gabe eman zizkidan bueltak, nere eskua autoko osagai bat balitz bezala eta nik, noski, ez nion ezer esan. Gustura esango nion ez emateko bueltarik, berdin zitzaidala. Peajeko kobratzaileak arrosa koloreko erredura zeukan aurpegian, eta erreduraren inguruan, moztarik ez zuen ile-ilara bat. Ez zidan begiratu ere egin. Begiratu izan balu, seguruenik jabetuko zen zerbait izugarria gertatzen ari zitzaidala eta agian... Baina tira, berak ere izango zituen arazoak arrosa koloreko masaila harekin. Nere emaztearengan ere luze pentsatu nuen. Gaixoa. Laura oso sentibera da. Arratsaldero egiten du lan Manos Unidasen; laguntza edozeini eta edonon emateko helburua duen erakundea da. Horrek ederki adierazten du nolakoa den bera. Umeaz, berriz, ez nekien zer sentitu. Nere semea zen, baina batere ezagutzen ez nuen pertsona bat ere bazen. izen zehatzik ere ez zeukan. Izan ere, ordu ezkerortik, berari buruz hitz egiten dugunean, "umea" esaten dugu. Agian pertsona ospetsua izango zen: zientzilaria, futbolista edo antzeko beste zeozer. Baina era berean, fatxa ere izan zitekeen, beste arrazetako pertsonak jipoitzen ibiliko zen norbait. Hori ez dago jakiterik. Autoan eman nituen lau ordu horietako kontu garrantzitsuena nere ahalmen berriak ezagutzea izan zen. Peajea bueltatu zizkidaten txanponak eskuan estutuz, autopistari begira, ahalmen bat nuela jabetu nintzen: etorkizuna ametsetan iragartzen nuen. Horrek nere bizitza osoa aldatu zuen. Umea ehortzi eta denbora puska batera, Laurari eman nion nere aurkikuntzaren berri. Laura!

LAURA SARTZEN DA. ESKUETAN, ZURITZEN ARI DEN PATATA ETA AIZTOA DITU.

HIPOLITO.- Laura, ahalmen bat dut.

LAURA.- Zer?

HIPOLITO.- Etorkizuna ametsetan ikusten dut.

LAURA.- Zer?

HIPOLITO.- Umea hil egiten zela amestu nuen. Moto-istripuaren ondoren, ospitalean alta eman zidaten egun berean izan zen. Gertatu baino zazpi hilabete lehenago iragarri nuen amets batean.

LAURA.- Zer amestu zenuen?

HIPOLITO.- Ametsean, guardia zibil batek umea erditzeko garaian hilko zela esan zidan.

LAURA.- Hipolito, kontsultako giroak ez dizu batere onik egiten.

HIPOLITO.- Ez dizut esan nahi izan, denbora tarte bat igaro arte.

LAURA.- Hipolito.

HIPOLITO.- Izugarria da, ezta?

LAURA.- Umeaz berriro ez hitz egitea erabaki genuen. Niretzat ez da batere atsegina.

HIPOLITO.- Ez, ez duzu ulertu. Etorkizuna iragartzen duten ametsak izaten ditut. Ziur naiz.

LAURA.- Ez egin txantxarik kontu horiekin. Ez da atsegina.

HIPOLITO.- Ez da txantxarik!

LAURA.- Ogia erosi duzu?

HIPOLITO.- Ez...

LAURA.- Ba afaltzeko ez dugu ogirik.

LAURA IRTEN EGITEN DA.

HIPOLITO.- Txantxa bat zela pentsatu zuen. Nola pentsa zezakeen horrelako kontu batekin txantxetan arituko nintzela!! Lauraren erreparoei kasurik egin gabe, nere ametsak sistematikoki betetzen zirela egiaztatzen hasi nintzen. Goizero, jaiki eta

lehendabiziko gauza, ametsetatik gogoratzen nituen xehetasun guztiak libreta batean idazten nituen, etorkizunean gertatzen ziren ala ez egiaztatzeko. Laurari ezer esan gabe egiten nuen; banekien berak ez zuela ulertuko. Ondorio bat atera nuen. Nere ametsen batean hiru pertsonaia horietatik bat agertzen bazen -Laura eta bi gizonak, ametseko ospitaleko sendagilea eta guardiazibila-, iragarpen bat gertatuko zen. Nere semearen heriotzaz aparte, beti kontu txikiak izaten zirela aitortu beharra daukat, lehen azaldu ditudan bezalako iragarpen sinpleak... Dakotako ametsa izan nuen arte.

ELBARRIA.- Aizu! **Indibiduo!!** (HIPOLITOK BEREGANA EMATEN DU BUELTA). Emango dizkidazu hoguei duro beikon bokadilo baterako? Ogi integrala.

HIPOLITO.- Zer?

ELBARRIA.- Gerrako elbarria naiz. Ezindua.

HIPOLITO.- Zein gerratakoa?

ELBARRIA.- (FILOSOFIKOKI, HORIZONTERANTZ BEGIRA) Edozein gerratakoa. Gerra guztiak berdinak dira.

HIPOLITO.- Badira gutxienez berrogeita hamar urte herri honetan ez dela gerrarik.

NOBIO-BIKOTEA SARTZEN DA. LAURA ETA OSPITALEKO AMETSEKO SENDAGILEA DIRA. HELDUTA DOAZ ETA ELKAR MUSUKATZEN ARI DIRA.

ELBARRIA.- Hori da zuek uste duzuen, **inozo halakoak!**

HIPOLITO.- Ez, ez, ziur naiz. Ez da gerrarik.

ELBARRIA.- Hoguei durogatik eztabaidan hasi behar al dugu? **Iraingarriada.**

HIPOLITO.- Gerrarik izan balitz, jakingo nuen. Egunero entzuten dut Gaur Egun.

ELBARRIA.- Ea, zenbat urte ditut, **inorantea?**

HIPOLITO.- Ez dakit.

ELBARRIA.- Laurogeita sei urte. Jaramako batailan zauritu ninduten, Madrilen, 1937ko otsailaren 7an. Eguzkia zuhaitzak argitzen hasten ari zenean, arbustoen artean pasatu zen bala baten soinua entzun nuen eta, une berean, hazkura izugarria aldakan, bazirudien mila erlek leku berean eman zidatela zitzada. **Insektua!**

HIPOLITO.- Benetan espero duzu 86 urte dituzula sinestea? Ez naiz itsua.

ELBARRIA.- Zatoz, **inomine batean.**

ELBARRIAK MAKULUAZ BULTZATZEN DU NOBIOAK DAUDEN LEKURANTZ. HAUEK MUSU HANDI BAT ARI DIRA EMATEN ELKARRI. ELBARRIAK BULTZADA BAT EMATEN DIE BERTAN DAGOELA JABETU DAITEZEN.

ELBARRIA.- (NOBIOEI) Aizue, **inurri nazkagarriok!!** Zuen ustez, zenbat urte ditut?

NOBIOEK ELKARRI BEGIRATZEN DIOTE.

MUTILAK.- Ui, ba ez dakit (NESKARI BEGIRA) Zer esango diot?

NESKAK.- (MUTILARI BELARRIRA) Laurogeita sei.

MUTILAK.- Laurogeita sei.

NESKAK.- (BESTE BIEI, DISKULPA ESKATUZ). Eskas samarra da, baina oso guapoa.

MUTILAK.- (BARREZ) Je, je.

NESKAK.- Eta laster beste seme bat izango dugu.

MUTILAK.- Bai?

NESKAK.- Bai.

ELBARRIA.- **Inozenteak.**

ELBARRIAK BERRIZ ERE BULTZAKA ERAMATEN DU HIPOLITO. NOBIOAK ELKARBESARKATUTA DOAZ.

ELBARRIA.- Aditu duzu (ESKUA ZABALTZEN DU) Hogeituro. **Interesatua.**

HIPOLITO.- (NESKAZ) Nere emaztea da.

ELBARRIA.- Eta ni zure izeba. Beikon bokadiloa. Ogi integrala.

HIPOLITO.- Nere emaztea da.

ELBARRIA.- (BESOTIK TIRAKA) Beikon beroa eta karraskaria, **intendente**.

HIPOLITO.- Utzi bakean (BULTZADA BAT EMATEN DIO)

ELBARRIA.- Ez diozu laguntzarik eman nahi beterano bati. Nik aldakako hezurrarekin bala bat gelditu nuen, baina gizarteak ez die lagundu nahi aberriaren alde borroka egin dutenei. Hori onartezina da.

HIPOLITO.- Zuk ez duzu inon borrokarik egin.

ELBARRIA.- Kaleak oztopo arkitektonikoez betetzen dizkidazue, dirulaguntza miserablea eman eta zuen ondotik pasatzen naizenean beste aldera begiratzen duzue, nahikoa egin duzuela pentsatuta. Zer pentsatzen duzue, **infernuko etsaiak** zaretela?

HIPOLITO.- Utzi topikoak alde batera.

ELBARRIA.- Eta gainera topiko bihurtu nauzue. Sinestezina. Gizarte baten progresomaila, gutxiengoei eta kolektibo kaltetuenei emandako arretaren arabera neurtzen da. Eta ni egoera horretan nago. **Indiolar harroa**.

HIPOLITO.- Zu ez zara kolektibo bat.

ELBARRIA.- Bai, banaiz. Eman hogeitasei duro, **indibaba!!**

HIPOLITO.- Ez.

ELBARRIA.- Ondo da. Ederki. Baina ez harritu metraileta bat hartu eta Dakotako Mcdonalds batean hogeitasei pertsona hiltzen baditugu. (HASERRE) Baina zuk somatu ere ez duzu egiten non dagoen Dakota. Zuri bost axola Dakotan gerta daitekeena. **Interesatua**. Ba begira, Dakotarik bada, adixkidea. Han pertsonak bizi dira. (ABIATU EGITEN DA. BUELTA EMATEN DU) Egunkarietan leituko duzu. Hogeitasei duro miserableekin, sarraski bat ez gertatzea lortuko zenuen. **Indokumentatua!!**

ELBARRIA BADOA.

HIPOLITO.- (IKUSLEEI) Izaten ditudan ametsak bete egiten direla guztiz konbentziturik, nere eginbeharra Dakotako gobernadoreari gutun bat idaztea zela pentsatu nuen. Ametsean agertu bezala, Gerrako beterano batek Mcdonalds batean sarraskia eragingo zuela esanez idatzi nion. Handik hilabetera, Amerikako enbaxadako gizon bat etorri zen etxera. Amerikarrek oso serio hartzen dituzte segurtasun-kontuak. Esandakoa egiaztatzerako zetozen. Nere ametsen berri emanez gero, txantxat hartuko zituela pentsatu nuen, Laurak bezalaxe. Beraz, gezurra esan nion. Txantxa bat zela (ENBAXADAKO GIZONARI ESANGO BALIO BEZALA) "Lagun batekin egin nuen apustu. Ezetz idatzi gutun bat Dakotako gobernadoreari? Eta nik, oso ausarta naizenez, idatzi egin nion (BARRE EGITEN DU, DISIMULATU NAHIAN) Ja, ja. Ez nuen uste horregatik krisi bat gerta zitekeenik. Ja, ja". Ezin nizekin kontatu nere ametsak arrotz bati. Berak ere ez zidan sinestuko. Uste dut orduan izan zela, isilpeko agente amerikarrarekin kafea hartzen, orduan hasi zen Laura pentsatzen ni ez nengoela burutik ondo. Isilpeko agentea Percy zen. Bere gustukoak

ginen. Bere aitona Markinakoa zela esan zigun eta horregatik bidali zutela Euskadira. Bere aitona etorkin joan zen Estatu Batuetara eta autoak garbitzeko tunelekin, Ameriketara oso ezaguna zen Window katearekin, sekulako dirutza irabazi zuen; baina Percy abenturazalea zen eta isilpeko agente izateko izena eman zuen. Harritu egin ninduen isilpeko agentea bihurtzeko izena ematerik izateak. Baina Percyk ez zuen euskara erabat menperatzen eta litekeena zen hitz egokia ez aurkitzea... Hala ere, Estatu Batuak herri handia da. Han denetatik egin liteke. Nik uste dut Percy Lauraren gustukoa zela. Oso gihartsua zen. Eta begiratu egiten zion mahai gainean jarri berri duten arkume erreari begiratzen zaion moduan. Nik ia ez nuen hitzik egin egoera hartan oso lotsatuta nengoelako. Baina zuek zer egingo zenuten? Amets hartan argi eta garbi iragartzen zen Dakotako McDonalds batean sarraski bat izango zela eta nere eginbeharra zela iruditu zitzaidan... Edo ez, ez horixe. Zuetako batzuk konturatuko zineten... Ni hasiberria nintzen ametsak interpretatzen. Bapatean, Percy isilpeko agenteak Window garbiketa-tunelen katea bere arreba Tracyren ardurapean uzteko zituen arazoak ematen zituen bitartean, nik argi eta garbi ikusi nuen. Ametsak iragartzen zuena ez zen sarraskia, nere emaztea beste tipo batekin, nobioak balira bezala, muturrean musuka erakusten zuen irudia baizik. Eta beraz, ametsak iragartzen zuena horixe zen, emaztea beste batekin zebilela. Baina lehen oker banengoen, orain ere egon nintekeen nahastuta. Hori intuizio bat baizik ez zen, ez nuen frogarik. Percy isilpeko agentea goizeko ordubietan joan zen, izozkailuan genuen melokotoi-likore guztia bukatu eta gero. Autoraino lagundu genion. Laurari begiaz keinu egin ziola iruditu zitzaidan. Emazteak beste batekin adarrak jartzen zizkidala susmatzeak egun batzuetan obsesionatu egin ninduen. Hasieran, ustez bere amarekin telefonoz hizketan ari zela, Amerikar enbaxadarekin klabea ari zela pentsatu nuen, Percy isilpeko agentearekin isilpean geratzeko. Aurrerago, Manos Unidasen jo eta ke lanean aritzeagatik, beste arrazatako gizonak erakartzen zutela pentsatu nuen: watusiak, indioak, mogolak... Diotenez, emakumeek fantasia ugari izaten dituzte beste arrazatako gizonekin... Azkenik, nere susmo guztiak arrazoigabeak zirela pentsatu eta ahaztu egin nituen. Gilermo Morroi nere kontsultan agertu zen arte.

GILERMO MORROI SARTZEN DA. AMETSETAKO SENDAGILEA ETA NOBIOA DA. TRAJEZ JANTZIRIK DAGO, OSO ITXURA FORMALA DU. EXEKUTIBO EMATEN DU.

GILERMO.- Egun on! (ESKUA LUZATZEN DIO) Gilermo Morroi, hortz-protesi-gilea. (BESTE ESKUAREKIN TXARTEL BAT EMATEN DIO).

HIPOLITO.- (MUGITU EZINIK, BERE AMETSETAKO PERTSONAIA BAT EZAGUTUZ). Kaixo. (TXARTELA IRAKURTZEN DU)

GILERMO.- Telefonoz mintzatu gara.

HIPOLITO.- Bai... (ESKUA EMANEZ. GILERMOK ORAINDIK LUZATURIK ZEUKAN). Elkar ezagutzen dugula iruditzen zait.

GILERMO.- Ez litzateke harritzekoa izango, lanbide berekoak garenez gero...

HIPOLITO.- Ez da sentsazioa. Ederki dakit zertaz ezagutzen zaitudan.

GILERMO.- Agian kongresuren batean egingo genuen topo.

HIPOLITO.- Nik zurekin egin dut amets.

GILERMO.- Bai? Ez dut oroitzen.

HIPOLITO.- Neuk izan zaitut amets batean. Nola gogoratuko zara zu?

GILERMO.- Bikaina... Nik ez dut amets egin zurekin, ja, ja. (DAKOTAKO AMETSEAN NOBIOAK EGIN DUEN JAJA BERA DA). Baina zutaz askotan hitz egin didate eta beti gauza onak esateko. Horrexegatik deitu dizut. Zure kontsultaren bilakaera jarraitu dut. Piorreari buruz idatzi zenuen artikulu hura irakurri nuen. Benetan estimatzen dut zure lana, halaxe aitortzen dizut.

HIPOLITO.- Piorrea, bai, noski.

GILERMO.- Irudimen handiko teoria, hasieratik halaxe esaten dizut. Intuizio handia behar da.

HIPOLITO.- Hori ere ametsetan agertu zen.

GILERMO.- Ja, ja. Zu... Izugarria zara. Ederki, telefonoz mintzatu ginenean esan nizun bezala, gure tarifak, eta horrelako prezioak eskaini ahal izatearen arrazoia aurrez aurre azaldu nahi izan dizkizut. Sekretua, hain zuzen ere, lan-sisteman datza. Etekin handiko erakundeen filosofia erabiltzen dugu. Langile guztiok enpresaren arduradun nagusiak gara. Denok liderrak gara. Gure helburuek oso goian dute jomuga eta, era berean, uztarturik daude. Hori dela eta, eraginkortasun-indizeek gorantz egiten dute eten gabe. Etekina, etekina, etekina. Laburtzeko, gure piezak kalitate hobereenez daude eginik, halaxe ziurtatzen dizut. Eta preziorik onenak ditugu. Hainbat hortz, hagin eta dentadura oso ekarri dizkizut, zuk ikusi eta...

HIPOLITO.- Entzun al duzu esan dizudana? Zurekin egin dut amets, zu ezagutu baino lehen.

GILERMO.- Zer?

HIPOLITO.- Ez, ezer ez.

GILERMO.- Ez zaizu damutuko zure konfidantza gure enpresari ematea. Gure bezero-zerrenda hogeitasei haginlarik osatzen dute eta arront pozik daude gurekin.

HIPOLITO.- Ederki, konbetzitu nauzu. Hemendik aurrera zuekin egingo dut lan.

GILERMO.- Enkarguak bezeroei emateko epea izugarri laburtu dugu.

HIPOLITO.- Ziur naiz horretaz.

GILERMO.- Gu erabat harro egongo ginatke zu bezalako profesional batek bere konfidantza emango baligu.

HIPOLITO.- Baietz...

GILERMO.- Eta gure produktuen kalitatearen eta prezioaren arteko tasa gero eta hobea izateko konpromezua hartzen dugu.

HIPOLITO.- Baietz!

GILERMO.- (ULERTU GABE) Bai?

HIPOLITO.- Hurrengo astetik aurrera enkarguak jasoko dituzu. Zure eskaintza onartzen dut.

GILERMO.- Ez duzu laginik ikusi nahi? Hainbat dentadura ekarri ditut...

HIPOLITO.- Ez.

GILERMO.- Gustukoa zaitut, halaxe adierazten dizut. Ez dut jasaten duda-mudatan ibiltzen den jendea.

HIPOLITO.- Beraz, ez dago besterik esan beharrik.

GILERMO.- Harrituta nago, halaxe adierazten dizut.

HIPOLITO.- Ni ere bai.

GILERMO.- Edozer egiteko prest nengoen zu gure bezero izateko. Halaxe ziurtatzen dizut.

HIPOLITO.- (ESKUA EMATEN DIO) Agur.

GILERMO.- (ESKUA HARTUZ) Etekina, etekina, etek...

HIPOLITO.- Agur.

GILERMO.- Bai, nahi duzuna.

GILERMO BADOA

HIPOLITO.- (BISITA-TXARTELA BERRIRAKURRIZ) Gilermo Morroi, hortz-protedigilea. Bera ari zen musuka nere emaztearekin Dakotako ametsean. Beraz, existitzen zen eta nere susmoak bete egiten ziren, Laurak adarrak jartzen zizkidan inozo harekin. Gilermorekin lan-harremanak izanez gero, egoera hobeto kontrolatuko nuela pentsatzen nuen. Hori zela eta...

GILERMO BERRIZ SARTZEN DA.

GILERMO.- Barka ezazu.

HIPOLITO.- Zer nahi duzu?

GILERMO.- Baietz esan duzu? Gurekin egingo duzula lan?

HIPOLITO.- Bai.

GILERMO.- Ziur?

HIPOLITO.- Bai, zer nahi duzu, odoleko anaiak bihurtzea?

GILERMO.- Ni, zuk nahi duzuna.

HIPOLITO.- Ez dut berriro hitz egin nahi kontu honetaz.

GILERMO.- (KEINU BAT EGITEN DU, AHOA KREMAILERAZ ITXIKO BALU BEZALA).

HIPOLITO.- Agur.

GILERMOK ERREBERENTZIA EGIN ETA BADOA

HIPOLITO.- Beraz, Dakotako ametsean nere emazteak adarrak jarriko zizkidala iragartzen zenez, protedigilearekin behar zuen izan. Horren ondorioz, edo ordurako moldatzen ziren edo etorkizunean moldatuko ziren. Nere susmoak diskrezio osoz

egiaztatzea erabaki nuen. Nere emazteari froga bat jarri nion, hasieran aipamen txikien bidez, eguraldiaz hitz egingo bagenu bezala... Arratsalde hartan bertan hasi nintzen.

HIPOLITO ETXERA IRITSI ETA LAURAK BERE BESOETARA EGITEN DU SALTO. MUSUKATU EGITEN DU.

LAURA.- Oh, Hipolito... (MUSU EMATEARI UTZI GABE) Zure zain nengoen.

HIPOLITO.- Laura, zertan ari zara?

LAURA.- Jartzen nauzu...

HIPOLITO.- Nola?

LAURA.- Bero, bero...

HIPOLITO.- Horrela, bapatean?

LAURA.- Ohera joango gara?

HIPOLITO.- Afaldu baino lehen?

LAURA.- Agian gaur beste ume bat egingo didazu. (INSINUAZIOZ BETETA) Egun hauek egokienak dira niretzat.

HIPOLITO.- Ah, hori da. Kontu horiekin hoztu egiten naiz, badakizu.

LAURA.- (POTROETATIK HELDUZ) Hoztu egiten zara?

HIPOLITO.- Pixka bat.

LAURA.- Ui (POTROETATIK) Ba honako honek ez du gauza bera esaten.

HIPOLITO.- Ez heldu hain... ai! Barrabilak!!

LAURA.- Barkatu.

HIPOLITO.- Astakirtena!

LAURA.- Barkatu.

HIPOLITO.- Aizu, oraintxe gogoratu naiz, gaur goizean Gilermo Morroi ikusi dut.

LAURA.- Zein?

HIPOLITO.- (EBIDENTEMENTE) Gilermo.

LAURA.- Ze Gilermo?

HIPOLITO.- Ezagutzen zaituela esan dit.

LAURA.- Ez dut gogoratzen (BERRIZ ERE SEDUZITUZ. SEXUALKI). Hipolito, egunetik egunera guapoago zaude.

HIPOLITO.- Tira...

LAURA.- Hipolito... hip, hip, hip... (LAURA KILIMAK EGITEN HASTEN DA)

HIPOLITO.- (BARREZ) Ez egin hori, mesedez, mesedez!!!

LAURA.- (JOSTARIN) Bagoazela, bagoazela...!

HIPOLITO.- Hortz protesigilea.

LAURA.- Zer?

HIPOLITO.- Protesigilea.

LAURA.- Protesigilea?

HIPOLITO.- Gilermo, badakizu.

LAURA.- Zer dakit nik?

HIPOLITO.- Protesigilea dela.

LAURA.- Nik badakit bera protesigilea dela?

HIPOLITO.- Bai.

LAURA.- Zein den ez dakit eta.

HIPOLITO.- Gilermo da.

LAURA.- Eta zer?

HIPOLITO.- Ezer ez. Aipamen txiki bat baino ez zen.

LAURA.- Eta unerik egokiena iruditzen al zaizu aipamen txikiak egiteko? Kontzentra zaitetz (LAURAK MUSU EMATEN DIO). Hipolito.

HIPOLITO.- (GAINETIK KENDUZ) Gaur oso txukun geratu zaizu orrazkera.

LAURA.- Bai, ba ondo begiratu, oraintxe bertan desegingo dut eta.

HIPOLITO.- Jakiteko gogoa izango zenuela pentsatu dut.

LAURA.- Eta jakiteko gogoa nuen.

HIPOLITO.- Gogoa zenuen? Banekien.

LAURA.- Nahi baduzu, ile-apaintzaileari beti horrela orrazteko esango diot.

HIPOLITO.- Ez, orrazkera ez. Gilermo.

LAURA.- Gilermo, zer?

HIPOLITO.- Pentsatu dut berak eta biok elkar ikusi dugula jakiteko gogoa izango zenuela.

LAURA.- Zergatik?

HIPOLITO.- Zera pentsatu dut: Ea ze aurpegi jartzen duen Laurak Gilermorekin izan naizela jakiten duenean.

LAURA.- Ba ikusi duzu.

LAURAK ALKONDARA KENTZEN DIO

HIPOLITO.- Berdin zaizu?

LAURA.- Egia esateko, niri bost axola.

HIPOLITO.- Gilermo da!

LAURA.- Neregatik, Aita Santua balitz bezalaxe.

HIPOLITO.- Benetan esan duzu berriz ere haurdun geratu nahi duzula?

LAURA.- Zuk ez duzu nahi?

HIPOLITO.- Hain denbora laburrean...

LAURA.- Zenbat eta lehenago, hobe.

HIPOLITO.- Zergatik?

LAURA.- Hogeita hamalau urte ditut.

HIPOLITO.- Badakit zenbat urte dituzun.

LAURA.- Ez pentsatu. Jarraitu niri.

HIPOLITO.- Beraz, haurdun geratu nahi duzu berriro.

LAURA.- Bai, baina laguntza pixka bat behar dut...

HIPOLITO.- Gilermok hortz protesiak prezio bikainean eskaini dizkit.

LAURA.- Zer?

HIPOLITO.- Protesiak.

LAURA.- Hazi-banku batera joateko gauza naiz. Halaxe ziurtatzen dizut.

HIPOLITO.- Nora?

LAURA.- Nola aritu zaitezke hortz-protesiez hitz egiten larrua jotzen dugun bitartean?

HIPOLITO.- Oraindik ez gara hasi larrua jotzen eta gainera esan nahi dizut piorreaz idatzi dudan artikulua irakurri duela.

LAURA.- Eszitatzen ari zaren bitartean ahoko gaixotasunez hitz egiten duen gizon bakarra izango zara.

HIPOLITO.- Gilermok gauza asko daki niri buruz.

LAURA.- Tipo horren izena berriz entzunez gero, muñeko hintxable bat erosiko dut.

HIPOLITO.- Pentsatzen aritu naiz...

LAURA.- Ez pentsatu. Ekin!!! Ez esan ezer. Erabili eskuak!! Hipolito. Hip, hip, hip!!

HIPOLITO.- Laura, afaldu eta gero ere berdin izango da. Ez dugu presarik.

LAURA.- (SEXU KONTUAK UTZIZ) Ez, ez dugu presarik.

HIPOLITO.- Piezaren bat eskatzea erabaki dut, Gilermo horrek nola egiten duen lan ikusteko.

LAURA.- Hipolito.

HIPOLITO.- Zer?

LAURA.- Azken aukera emango dizut.

HIPOLITO.- Zertarako?

LAURA.- Ez dut izen hori berriz entzun nahi.

HIPOLITO.- Zein?

LAURA.- Ez esan.

HIPOLITO.- Gilermo?

LAURAK HASERRE BEGIRATZEN DIO, ATZAMARRAZ ERAKUTSIZ, ASTAKERIAREN BAT ESATEKOTAN EGONGO BALITZ BEZALA.

HIPOLITO.- Zer gertatzen zaizu?

LAURA.- Seietan etorriko zinela esan didazu. Ia bederatziak dira. Hiru ordu eman ditut telebistaren aurrean. Mila aldiz aldatu ditut kateak. Atzamarrean baba bat atera zait, saka eta saka ibili eta gero. Lehenago etorri naiz seietan etorriko zinela esan didazulako. Eguerdian esan didazu. Nik ere arratsaldean lana nuen... Badakit ez dudala zuk adina irabazten eta nere denborak ez duela zureak adina balio; baina nere lana da eta dena utzi dut seietan etorriko zinela esan didazulako. Gogorarazi nahi dizut hauexek direla egunak. Eta ez da nere kontua. Biona da. Beti esaten duzu xarma guztia galtzen duela, baina ez luke hala izan behar, gehiago izan beharko luke... Askoz ere... magikoagoa izan beharko luke. Zeuk deitu didazu telefonoz seietan etorriko zinela esanez. Eta hitz egiteko moduagatik, gogoratzen zinela uste izan dut. Niretzat ez da batere erraza. Pentsatzen aritu naiz... Arratsalde osoan pentsatzen aritu naiz seiak baino lehen iritsiko zinela, korrika, autoa garajea zeharka utzi eta kaixo ere esan gabe niregana salto egingo zenuela. Basati baten moduan. Baina ia bederatziak dira, bederatziak, eta piorreaz eta hortz-protesiak batez hitz egin baizik ez duzu egiten, bai, eta nik ez dut ezagutzen eta bost axola zait gainera. (LAURA NEGAR MALKOKA HASTEKOTAN DA) Sukaldera noa, beikon bokadilo bat prestatzera. Inutila!

LAURA BADOA

HIPOLITO.- (LAURARI, NAHIZ ETA LAURA KANPOAN DAGOEN) Egunen batean afaltzera gonbidatzea pentsatu dut. (ERROPA TXUKUN JARTZEN HASTEN DEN BITARTEAN, IKUSLEEI) Bere jarrera argigarria izan zen. Gilermo Morroiren izena aipatzea nahikoa izan zen: ni biluzteari utzi eta sukaldera joan zen, beikon bokadilo bat prestatzera. Gerrako elbarriaren bokadilo bera. gainera, in hasiera zuen hitz batekin amaitu zuen: inutila. Zein ondorio lortuko nuen, ba? (LOGIKOA DELA ADIERAZTEN DUEN KEINU BAT EGITEN DU) Lehen solasaldi hartan, Laura ni biluzten saiatzen ari zen bitartean, zalantza handi bat sortu zitzaidan. Zergatik haurdun geratu behar hori? Errudun sentitzen zen, agian? Presaka ibiltze hori

oso susmagarria zen. (LIBRETA BAT ATERA ETA IRAKURTZEN HASTEN DA) Berriz ere aztertu nuen Dakotako ametsa. Erantzunak neroni ere harritu ninduen: beste batek utzi zuen haurdun eta guk biok larrua jotzea nahi zuen koartada izateko. Ene Jainkoa! Agian hildako semea ere ez zen nirea izango. Eta nirea ez bazen, Gilermo Morroirena izango zen, seguru. "Laster beste ume bat izango dugu", esan zuen Laurak ametsean, Gilermo Morroirekin musuka ari zen bitartean. "Beste bat". Horrek esan nahi zuen aurretik ere bazela besterik. Egoera ondo aztertu behar nuen. Ni bi hilabetez izan nintzen ospitalean eta nere emazteak haurdun zegoela esan zidanean, alta jaso nuen egun berean, bi hilabeteko zegoela adierazi zidan. Beraz, ia istripuaren egun berean utziko nuen haurdun. Kasualitate handiegia. Baina agian ez zegoen bi hilabeteko. Izan ere, nere emaztearen kontuak zuzenak baziren, umeak bederatzi hilabete eta erdi behar izan zituen jaiotzeko. "Umea lehen aldiz izango dutenei pittin bat gehiago kostatzen zaie", esan zidan. Ja, ja. Baina semea beste batena izatekotan, beste batena ez, Gilermo Morroirena, horrek esan nahi zuen nere emazteak adarrak jarri zizkidala koma egoeran nengoen bitartean. Ideia horrek nazka ematen zidan. Baina jakiteko beharra nuen. Hamabost egun beranduago Gilermo afaltzera gonbidatu nuen etxera. Lehen urratsa, Lauraren aurrean nola jokatu zuen ikustea zen. Frogak behar nituen.

GILERMO ETA LAURA SARTZEN DIRA, GARAGARDOA ESKUAN. LAURAK BI DITU. HIPOLITORI BAT EMAN ETA ESERI EGITEN DIRA.

LAURA.- Hipolitorik afaltzera etorriko zinela esan zidanean, izugarri poztu nintzen. Zu ezagutzeko gogoia nuen. Hainbestetan hitz egin dit zutaz, Gilermo.

GILERMO.- (BETI ERE FORMALIDADE OSOZ) Hipolito oso eskuzabala da (HIPOLITORI) Laurak zure moto-istripuaren berri eman dit. Izugarria.

LAURA.- Hil egin zitekeen.

GILERMO.- Kaskoa erortzea ere... (ESKUAZ ERRIETA EMANEZ) Jaungoiko maitea.

LAURA.- Ez zeraman loturik.

GILERMO.- (BERRIZ ERE ERRIETA EMANEZ) Ene bada!

LAURA.- Beti gogorarazten nion: "lotu ezazu kaskoa". Bi hilabete eman zituen ospitalean eta bi aste koma egoeran... Traumatismo kraneoenzefalikoa. Burdinazko plaka bat du buruan.

GILERMO.- (PLAKARI BEGIRA) Alajainkoa. Nik beti esaten dut, gogo betez bizi behar da ze edozein momentutan... pam, kolpea buruan.

LAURA.- Bizitza gozatu egin behar da.

GILERMO.- Noski, total, lau egun emango ditugu hemen eta dagoeneko hirugarrenean gaude...

LAURA.- (BESOTIK HELDUZ, IRONIKOKI) Oso pozik nago elkarrekin ari zaretelako lanean, Gilermo.

HIPOLITO.- Adiskide onak egin zaretela nabaritzen dut.

LAURA.- Gilermo? Betiko laguna dela ematen du.

HIPOLITO.- Izango ez da, ba!

GILERMO.- Oso jatorrak zarete.

LAURA.- Gilermo, galdera bat egiten utziko didazu?

GILERMO.- Nahi adina galdetu.

LAURA.- Zuk, larrua jotzen duzunean, zertaz hitz egiten duzu?

GILERMO.- (BARREZ) Ja, ja. Hipolito, zure emaztea izugarria da, halaxe ziurtatzen dizut. Zertaz hitz egiten dudan?

LAURA.- Zuzenagoa izango naiz. Larrua jotzen duzunean, Hipolitori buruz hitz egiten duzu?

GILERMO.- Berari buruz?

LAURA.- Bai.

GILERMO.- Tira... Egia esan, horrelako egoeretan ez naiz oso... hiztuna. Ni beti mamira. Ja, ja.

LAURA.- Berak eten gabe hitz egiten du zutaz

GILERMO.- (BATERE ULERTU GABE) Nitaz?

LAURA.- Orain hamabost egun hasi zen, harreman... intimoak izaten saiatzen naizen bakoitzean, ni bero-bero nagoela ikusten duenean, pam, gaia sartzen du.

GILERMO.- Gaia?

LAURA.- (ZENBAKETA BATI HASIERA EMANEZ) Protesiak...

GILERMO.- Protesiak sartzen ditu?

LAURA.- Zuk ere egiten duzu?

GILERMO.- Ez! Nik pentsatzen dut halako kontuetan... bakoitzak bere trikimailuak erabiliko dituela.

LAURA.- Pentsatu dut agian zuen ohitura izango zela. Emakume bateki ohean zaudetenean, batak besteari buruz hitz egiten duela, badakizu, protesiez, piorreaz...

GILERMO.- Ez, nik dakidala ez...

HIPOLITO.- Lauraren umorea izugarria da.

GILERMO.- Segituan konturatu naiz. Gilermo, Laura izugarria da.

HIPOLITO.- Eta polita, ezta?

GILERMO.- Inbidia handia ematen didazu. Horrelako emakumerik izango banu...

HIPOLITO.- Gustukoa duzu, eh?

GILERMO.- (ATSEGINA IZAN NAHIAN) Gizonen batek besterik esango balu gezurretan arituko zen, halaxe baieztatzen dizut. Laura bezalako emakumeei eskaintzen zaizkie abestiak.

HIPOLITO.- Pillin... (IZTERREAN KONPLIZITATE KOLPEAK EMATEN DIZKIO)... Eta izter ederrak ditu, eh?

LAURA.- Hipolito.

GILERMO.- Tira... nik...

HIPOLITO.- Eta a ze ipurdia...!

LAURA.- Hipolito, ez zaitetz baldarra izan!

HIPOLITO.- (AMAITZEKO KOLPEA EMATEN DIO) Niri nere emaztea izugarri gustatzen zait.

GILERMO.- (ZER ESAN EZ DAKIELA) Pozten naiz.

HIPOLITO.- (ZAKAR SAMAR) Poztu egiten zara?

GILERMO.- Beno, ez. Tira, zentzu onean...

HIPOLITO.- Poztu egiten zara ala ez?

GILERMO.- Poztu, poztu ez. Beno, bai. Ez. Izan ere... berdin zait.

HIPOLITO.- Berdin zaizu. Entzun duzu, Laura? Berdin zaiola esaten du.

GILERMO.- Tira, ez zait berdin, baina zera esan nahi dut, zoragarria iruditzen zait senar-emazteen artean...

LAURA.- Zerbait jan nahi duzue?

HIPOLITO.- Ez, eskerrik asko. (GILERMORI) Zer esaten ari zinen?

GILERMO.- Ezer ez, ezer garrantzitsurik ez.

HIPOLITO.- Zera esaten ari zinen: zoragarria iruditzen zait senar-emazteen artean...

GILERMO.- Horixe ba!

HIPOLITO.- Horixe?

GILERMO.- Oso bikote... jatorra osatzen duzuela.

HIPOLITO.- Zein atsegina zaren... ezta, Laura?

LAURA.- Oso atsegina.

HIPOLITO.- Gilermo, ezinbestekoa iruditzen zaizu gizon batek eta emakume batek, batez ere ezkondata badaude, elkarri adarrak jartzea?

GILERMO.- Nik?

HIPOLITO.- Zer iruditzen zaizu infidelitatea?

GILERMO.- Sekula ez dut pentsatu kontu...

LAURA.- Hipolito? Zertara dator hau dena?

HIPOLITO.- (LAURARI) Eta zuk? Ba al duzu iritzirik gai honi buruz? Agian biak iritzi berekoak zarete. Agian zuen bion artean nolabaiteko adostasuna dago.

LAURA.- Higuigarri bihurtzen ari zara.

HIPOLITO.- Zergatik engainatu behar du bere senarra beste gizon batekin, pozik ezkondurik dagoen emakume batek?

LAURA.- Zure erruz urduritzen ari naiz. Afaria bukatzera noa.

LAURA IRTEN EGITEN DA

HIPOLITO.- Urduritzen ari da. Susmagarria, ezta?

GILERMO.- Ni, zuk nahi duzuna.

HIPOLITO.- Gilermo, bakarrik geratu garenez gero, gai profesional batez hitz egin nahi dizut.

GILERMO.- (GAIA ALDATZEAGATIK LASAITUTA) Gai profesional bat. Ederki.

HIPOLITO.- Zergatik egin zinen hortz protesigilea? Bokazioa?

GILERMO.- Baietz esan liteke. Nere aitona ordezko dentadura erabiltzen zuen.

HIPOLITO.- Noski.

GILERMO.- Ez, entzun. Uda batean, familia osoa hartuta, itsasuntzi bat alokatu genuen -txikia, ez pentsa- itsas bidaia bat egiteko: Mallorca, Menorka, Ibiza, Formentera, Ka... Balear Irlak hain zuzen ere. Nere aita oso ona zen txistek kontatzen. Goiz batean, itsasuntzian eguzkitara geundela, emakume bati buruzko txistea kontatu zuen: antza denez, kuleroak txorkatiletan zituela zihoan kaletik; guardiazipil batek, "dokumentazioa, mesedez" esan eta abar eta abar... Nik ez nuen ulertu, hamabi urte nituen... Baina antza denez nere aitona ederki ulertu zuen eta barrez algaraka hasi zen eta, ero moduan, lurrian zilipurdika ibili zen; kontuatu gabe, dentadura atera eta itsasora erori zitzaion. Besterik ez zuen eta ordezko dentadura berria bidali zioten arte, likidoak eta papilak bakarrik hartu ahal izan zituen. Dentadura berria iritsi arteko egunak izugarriak izan ziren beretzat. Beraz, pentsatu nuen barre egitean ordezko dentadurak ez ateratzeko sistema bat asmatu behar nuela. Hortik nere bokazioa. (PAUSA).

HIPOLITO.- Tira. Barkatu umila ez izatea, baina Euskal Herrian dauden sendagile estomatologo onenatariko bat naizela pentsatzen dut.

GILERMO.- Eztabaidaezina. Piorreari buruz idatzi zenuen artikuluak hurrengo haginlariaren... Barkatu, estomatologoaren hurrengo belaunaldian sekulako eragina izango du.

HIPOLITO.- Orain egun batzuk jaso nituen eskatu nizekizun lehen piezak.

GILERMO.- Bai, joan den astean.

HIPOLITO.- Ez nago batere pozik.

GILERMO.- Ez? Zergatik ez didazu ezer esan? Bueltatu besterik ez zenuen. Edozer konponduko genuen zure gustukoak izateko.

HIPOLITO.- Gai hau argitu eta gero, galdera errepikatuko dizut. Ezinbestekoa iruditzen zaizu gizon batek eta emakume batek, batez ere ezkondata badaude, elkarri adarrak jartzea?

GILERMO.- Barkatu, baina...

HIPOLITO.- Ea ulertzen duzun. Ez da horren zaila. Zera galdetu nahi dizut, ea senar-emazteek, nahiz eta izugarri maitatu elkar -aspertzen direlako, emozio berriak bilatzen dituztelako edo beste edozein arrazoa dela eta-, une batean batak bestea engainatu behar duen, ea adarrak jarri behar dizkion.

GILERMO.- Tira, ni... ezkondata ez nagoenez...

HIPOLITO.- Zure iritzia besterik ez dizut eskatu.

GILERMO.- Bai, baina zeharo nahastu nauzu gure lanarekin ez zaudela gustura esan duzunean... Orain arte ez didazu ezer aipatu.

HIPOLITO.- Abenturarako gogoia, agian? Lizunkeria?

GILERMO.- Zer?

HIPOLITO.- Zuei lan gehiago ez ematea pentsatzen ari naiz. Eta bururatu egin zait kolega guztiei gutun bat idaztea, zuen tailerraren profesionaltasun ezaren berri emateko (AHOTSA GORATUZ) Nik nahi badut, **bizitza osoan** ez duzu beste fundarik salduko.

GILERMO.- (ERABAT NAHASTURIK) Itxoin piskat, Hipolito, itxoin piskat. Etzazu astakeriarik egin. Ez dakit zer gertatu den, baina zuk nahi dituzun aldaketa guztiak egingo ditugu. Zure eskaera ahalik eta hoberen betetzen saiatu gara, halaxe ziurtatzen dizut, baina zerbait baldin badago...

HIPOLITOK ESKUAZ KEINU BAT EGINEZ GELDITZEN DU.

HIPOLITO.- Orain sinesgarritasun kontua besterik ez da. Zure enpresarekin lanean jarraitzeko zutaz fidatu behar dut, baina pertsona moduan. Nolakoa zaren jakin behar dut. Horrela zentzuzko erabakia hartu ahal izango dut.

GILERMO.- Erabat fidatu zaitezke nitaz.

HIPOLITO.- Hala bada, zergatik ez duzu erantzuten?

GILERMO.- Zeri erantzun?

HIPOLITO.- Egin dizudan galderari.

GILERMO.- Senar-emazteen arteko kontu horri?

HIPOLITO.- Bai.

GILERMO.- Erantzungo ez diot ba!! Ez dut batere arazorik (HIPOLITOK ZER ENTZUN NAHI DUEN JAKIN GABE) Nere iritzia... Nik uste dut...

HIPOLITO.- Zer?

GILERMO.- Bikote baten oinarria konfidantza dela (GILERMOK ESANDAKOA NAHIKOA DEN GALDETZEKO ASMOTAN BEGIRATZEN DIO).

HIPOLITO.- Nik ez nuen hobeto esango.

GILERMO.- Eskerrik asko.

HIPOLITO.- Eta, zer gehiago?

GILERMO.- Gehiago?

HIPOLITO.- (ERREPIKATZEAZ ASPERTUTA) Ea zure ustez gizon batek eta emakume batek nahita nahi ez elkar engainatu behar duten.

GILERMO.- Gizon batek eta emakume batek. Oso interesgarria da galdera hori. Gizon batek eta emakume batek. Tira. Maitasuna baldin badago... Ez dut ikusten arrazoirik elkar engainatzeko.

ISILUNE BAT, GILERMOK EZ DAKI ERANTZUN ZUZENA EMAN DUEN. HIPOLITOK SERIO BEGIRATZEN DIO

HIPOLITO.- Eta inork ez du senar-emazteen arteko zorionean traba egiteko eskubiderik.

GILERMO.- Inork ez.

HIPOLITO.- Orduan? Zergatik egin zenuen, Gilermo?

GILERMO.- Egin, zer?

HIPOLITO.- Umeak maite dituzu?

GILERMO.- Bai. Beno... Ez dakit. Bai.

HIPOLITO.- Zer egingo zenuke emakume bat haurdun utziko bazenu?

GILERMO.- Emakume bat, oro har?

HIPOLITO.- Oraingoz bai. Aurrerago zehaztuko dugu gehiago.

GILERMO.- Hori ezin da gertatu.

HIPOLITO.- Ba pentsa dezagun gerta daitekeela.

GILERMO.- Ba ez dakit... Berarekin ezkonduko nintzateke.

HIPOLITO.- Eta dagoeneko ezkondata egongo balitz?

GILERMO.- Ezkondata? Nirekin?

HIPOLITO.- Ez, zurekin ez.

GILERMO.- Beste batekin? Ni ez naizen beste batekin?

HIPOLITO.- Horixe bera.

GILERMO.- Ez dakit. Ezin dut horrelakorik pentsatu.

HIPOLITO.- Ba pentsa ezazu adibidez Laura dela.

GILERMO.- Laura?

HIPOLITO.- Bai, pentsa ezazu Laura utzi duzula haurdun.

GILERMO.- Ezin da beste inor izan?

HIPOLITO.- Ez.

GILERMO.- Nahiago nuke beste bat balitz.

HIPOLITO.- Lehenago pentsatu behar zenuen hori.

GILERMO.- Badut Adela izeneko lagun bat. Ezin dut Adela haurdun utzi?

HIPOLITO.- Ez.

GILERMO.- Ados. Hala nahi baduzu...

HIPOLITO.- Pentsa dezagun ni ospitalean, koma egoeran nengoen bitartean, zuek abentura bat izan zenutela.

GILERMO.- A ze burutazio nazkagarria!!

HIPOLITO.- Eta haurdun utzi zenuen.

GILERMO.- Nik ez, inoiz ez... Itxoin piskat. Hori ezinezkoa da.

HIPOLITO.- Zergatik?

GILERMO.- Beti erabiltzen dut preserbatiboa. Ja, ja. Harrapatu egin zaitut.

HIPOLITO.- Laurarekin?

GILERMO.- Denekin.

HIPOLITO.- Denekin?

GILERMO.- Beno, zera... Harremanak izaten ditudan emakume guztiekin.

HIPOLITO.- Baina Lauraz ari gara hizketan. Agian berarekin desberdina izango zen.

GILERMO.- Ez zen desberdina izango.

HIPOLITO.- beti berdin jokutzen duzu?

GILERMO.- Bai, beti...

HIPOLITO.- Ospitaletara joaten zara, koma egoeran dauden senarren emazteak liluratzera, zure preserbatiboak erabili ahal izateko.

GILERMO.- Zer? Ez.

HIPOLITO.- Orduan berarekin desberdina da. Berarekin ez zenuke preserbatiboa erabiliko.

GILERMO.- Bai. Hau da... Ez. Ez dakit.

HIPOLITO.- (OIHUKA) Zehatzagoa izango zara?

GILERMO.- Esan nahi dut ez zela desberdina izango zuk planteatu didazun kasuan, zure emaztea eta bion arteko harremanean, harreman hipotetikoan alegia... Beno, zure emaztea ez, nik emakume ezkondu bat haurdun utziko banu, zurea bezalako bat baina ez zurea... Ez baita benetako emakume bat, imaginatzen ari gara, pentsatzen ari gara nik haurdun utziko nukeela. Nahiz eta horrelakorik gerta ez daitekeen, nik beti preserbatiboa ondo jarrita eramaten dudalako.

ETENA. ELKARRI BEGIRATZEN DIOTE.

HIPOLITO.- Kontua da haurdun utzi zenuela.

GILERMO.- Zuk hala badiozu...

HIPOLITO.- Eh, aizu! Nik ez dakit ezer, ez? Ni koma egoeran nengoen.

GILERMO.- Baina garai hartan ez nuen zure emaztea ezagutzen.

HIPOLITO.- Eh, orain ez esan horrelakorik, eh? Haurdun utzi zenuen.

GILERMO.- Ederki...

HIPOLITO.- Aitortu ezazu.

GILERMO.- Nik...

HIPOLITO.- Zuk esatea nahi dut.

GILERMO.- Zaila egiten zait...

HIPOLITO.- Esazu.

GILERMO.- Haurdun utzi nuen.

HIPOLITO.- Nola utzi zenuen?

GILERMO.- Haurdun.

HIPOLITO.- Ozenago!

GILERMO.- Haurdun.

HIPOLITO.- Nor?

GILERMO.- Laura.

HIPOLITO.- Banekien. Eta orain, zer?

GILERMO.- Pentsatzen dut senarrarekin hitz egingo nuela. Zurekin. Egoera argitu eta konponbide bat topatuko genuke.

HIPOLITO.- Edo agian ez zenuke ezer esango eta horrela nik pentsatuko nuke umea nerea dela.

GILERMO.- Zer?

LAURA.- Lagunduko al didazue?

GILERMO.- (SALBATURIK) Afaria!!

HIPOLITO.- Eta gainera afaltzen ematen dizut.

GILERMO.- Oso jatorra zara. Ah, eta eskatu zenizkigun piezekin gustura geratu ez zarenez gero...

HIPOLITO.- Beste batean, beste batean...

HIPOLITO ETA GILERMOA BADOAZ. OSPITALEKO AMETSEKO GUARDIA ZIBILA AGERTZEN DA... ORAINDIK ERE ESKUARTEAN DU ARGIBASTOIA.

GUARDIA.- Nafarroako Karlos Hirugarrenak hamar bat koblakari zituen bere gortean: Nikolas Francon, Antso Etxalekukoa, Juanon Ezpeletakoa, Frantzisko Montalvokoa eta abar. Baina gaurkoan bati buruz hitz egin nahi dut: Gilermo Urtsuakoa, txalaparta eta arkuko bihuela jotzen zituen koblakaria. Batez ere bere bizitzaz hitz egingo dut. Gilermo Urtsuakoak bere kantari iharduera Nafarroako Erresuman burutu zuen. Kondairaren arabera, madona Konstantina izeneko dama bat bizi zen bertan. Dama hau Oliten ezkondu zen Bianako Printzearekin, gizon noble, aberats eta harroa bera. Gilermo Urtsuakoak dama hura maite zuen eta berari eskaintzen zizkion kantatzen zituen koblak. Baina hau guztia damaren senarra zen Bianako Printzeak jakin zuen. Guztiz jeloskorra zenez, hainbat ikerketa egin zituen eta entzundako guztia benetakoa zela jakinik, emaztea gazteluko dorrean giltzapetu zuen. Halako batean, Bianako Printzeak Gilermo Urtsuakoarekin egin zuen topo eta koblakaria bakarrik zegoenez, hil egin zuen. Printze jeloskorrak Gilermo Urtsuakoaren bihotza atera eta burua mozteko agindu zuen. Eta bihotza eta burua etxera eraman erazi zituen. Bihotza baratxuriarekin frejitzeko agindu zuen eta meriendan eman zion emazteari. Konstantinak jan zuenean, Bianako Printzeak galdetu zion: "Ba al dakizu zer jan duzun?". Eta berak erantzun: "Ez, baina oso haragi goxoa iruditu zait". Eta hark esan zion meriendan jan zuena Gilermo Urtsuakoaren bihotza zela; eta emazteak sinesteko, koblakariaren burua ekartzeko agindu zuen. Damak, bere maitalearen buru moztua ikusi zuenean, konortea galdu zuen. Logikoa da. Bere onera etorri zenean, hauxe besterik ez zuen esan: "Jauna, hain jaki goxoa eman didazunez, ez dut sekula besterik jango". Bianako Printzeak hori entzunda, sutu egin zen. Ezpata baten bila abiatu zen lasterka, baina damak, bitartean, balkoira joan, bere burua bota eta bertan hil zen. Istorio garratz hau Nafarroa osoan hedatu zen berehala eta tristura nagusitu zen. Kexuak lurralde haien jabea zen Karlos Hirugarrena Prestuarengana ere iritsi ziren eta Olitera deitu zuen Bianako Printzea. Bertan gartzeleratu zuen. Bi maitaleak eliz atariko monumentu batean lurperatu eta zaldun guztiak beren damekin urtero prozesioan bertara joateko agindu zuen. Horiek bai erregeak.

GUARDIAZIBILA BADOA. HIPOLITO AGERTZEN DA.

HIPOLITO.- Bitxikeria moduan, hauxe izan zen monologo formatoan izan nuen amets bakarra. Gilermo Urtsuakoaren kondairarekin amets egiteak lotura zuzena zuen Gilermo Morroi, hortz-protésigilearekin. Interpretazio bakarra egin zitekeen. Neu nintzen senar jeloskorra eta nere emaztearen maitalea hil behar nuen: Laura bezalako emakumeei eskaintzen zaizkie abestiak"... Beraz, horrek esan nahi zuen nik protésigilea hil egingo nuela. Ezin zen bestela izan. Baina ez nuen gogoko horren ondorioz Laurak bere buruaz beste egitea. Era berean, zalantzez josita nengoen garaia hartan ez nekielako ezer koblakarien kantuez. Nola egin nezakeen amets, nahiz eta ametsak nere buruaren bazter ilun batetik ateratzen ziren, niretzat horren urrunak eta ezezagunak ziren Nafarroako Gorteko koblakariekin? Gainera kondaira benetakoa da, nahiz eta, egin ditudan ikerketen arabera, koblakaria ez zen Gilermo Urtsuakoa (hau koblakari itsua zen eta bere bizitzaren datuak dokumentaturik daude), Gilermo izeneko koblakari katalan bat baizik. Guardiazibilak, batek daki zergatik, kondairako izen guztiak aldatu eta Nafarroan kokatu zuen eta ez benetako jatorrian, Kataluniako Roselló eskualdean. Bianako Printzea Oliten ezkondu zen, baina ez Konstantina izeneko dama batekin... Beno, hala ere, nola egin nezakeen amets ezagutzen ez nuen kondaira batekin, nahiz eta akatsez beteta egon? Gaur egun oraindik ere ez dut misterio hori argitzea lortu. Amets hau eta Laurarekin izan nuen solasaldi bat, nere ustez guztiz erabakiorra, garai berean gertatu ziren.

LAURA AGERTZEN DA

LAURA.- Hipolito, hitz egin behar dugu.

HIPOLITO.- Bai, nik ere zurekin hitz egin nahi dut.

LAURA.- Hitz egin dezagun.

HIPOLITO.- Hizketan ari gara.

LAURA.- Bai.

HIPOLITO.- Zertaz hitz egin nahi duzu?

LAURA.- Gutaz.

HIPOLITO.- Zutaz eta nitaz?

LAURA.- Gutaz.

HIPOLITO.- Horixe bera diot nik. Neuk ere gutaz hitz egin nahi dut.

LAURA.- Zuk esango duzu.

HIPOLITO.- Ez, esan zuk.

LAURA.- Ederki. Kontu pare bat argitu behar dugu.

HIPOLITO.- Banekien horretaz hitz egin nahiko zenuela.

LAURA.- Badakizu zer esan nahi dizudan?

HIPOLITO.- Gauza bakarra izan daiteke.

LAURA.- Uste dut ez dakizula.

HIPOLITO.- Harrituko nintzateke nik uste dudana ez bada.

LAURA.- Hipolito, badirudi betiko nahasketa gertatzeko arriskua dagoela: zuk uste duzu nik kontu batez hitz egin nahi dudala...

HIPOLITO.- ...eta zuk, ordea, beste kontu batez hitz egin nahi didazu.

LAURA.- Horixe bera. Eta zuk asmatu duzun egoera...

HIPOLITO.- ...guztiz okerra da.

LAURA.- Horixe bera.

HIPOLITO.- Ikusten? Badakit zer esango duzun, zuk esan aurretik.

LAURA.- Uste dut ez dudala hitz egin nahi zuk uste duzunaz.

HIPOLITO.- Ez dakizu nik zer uste dudan.

LAURA.- Baietz uste dut.

HIPOLITO.- Eta zer uste duzu?

LAURA.- Kontu bat.

HIPOLITO.- Itxoin piskat. (ESKUAZ KEINU BAT EGINEZ GELDITZEN DU). Horrela ez gara inora iritsiko.

LAURA.- Eskerrak konturatzen zaren.

HIPOLITO.- Berriz hasiko gara. Laura, hitz egin behar dugu.

LAURA.- Bai, nik ere zurekin hitz egin nahi dut.

HIPOLITO.- Hitz egin dezagun

LAURA.- Hizketan ari gara.

HIPOLITO.- Bai.

LAURA.- Zertaz hitz egin nahi duzu?

HIPOLITO.- Gutaz

LAURA.- Zutaz eta nitaz?

HIPOLITO.- Gutaz.

LAURA.- Hara! Orduan, “berriz hasiko gara” esan duzunean, benetan hasi nahi zenuen berriz.

HIPOLITO.- Zer uste zenuen?

LAURA.- Zerbait esan nahi zenidala.

HIPOLITO.- Noski.

LAURA.- Zerbait zehatza.

HIPOLITO.- Zuk ere ez didazu ezer zehatzik esan.

LAURA.- Nola esango dizut, isildu ere egiten ez bazara!!

HIPOLITO.- Nirea izango da errua.

LAURA.- Ez ditugu errudunak bilatu behar, baina onartu behar duzu...

HIPOLITO.- Zer?

LAURA.- Zure jarrera...

HIPOLITO.- Zer?

LAURA.- Izugarri aldatu dela.

HIPOLITO.- Aldatu?

LAURA.- Bai. Zuk bidalitako gutuna zela eta, isilpeko agente amerikarra etorri zen egunetik, izugarri aldatu zara.

HIPOLITO.- Horixe da ulertu nahi ez duzuna.

LAURA.- Zergatik ez didazu azaltzen?

HIPOLITO.- Denbora puska bat eman dut horretan eta zuk ez didazu uzten hitz egiten.

LAURA.- Hipolito, badirudi betiko eztabaida gertatzeko arriskua dagoela: "ez didazu hitz egiten uzten"... "Ez, zeu zara hitz egiten uzten ez didana..."

HIPOLITO.- Eta gertatzen dena zera da...

LAURA.- Jarraitu.

HIPOLITO.- Ez dugula ezer esateko.

LAURA.- Horixe bera.

HIPOLITO.- Eta hori da gure arazoa.

LAURA.- Horixe, bai.

HIPOLITO.- Ez. Arazoa bestelakoa da: Ameriketara bidali nuen gutuna ez zen txantxa bat izan. Hamaika aldiz azaltzen saiatu naiz. Horregatik ikusten nauzu aldatuta. Umea hil zenean sinesten hasi nintzen. Ondoren Percy agertu zen eta ondoren Gilermo Morroi.

LAURA.- Nahikoa da. Zintzo jokatuko dut zurekin. Zortzi urte nituenean gure aitak Ebroren iturburua Ikustera eraman ninduen, Fontibrera. Izugarria zen. Holako ur-txorrotada sortzen zen harkaitz batetik. Geldiezina. Irudi hori buruan gorde dut.

HIPOLITO.- Zer?

LAURA.- Beti pentsatu izan dut gure artekoa oroitzapen horren antzekoa izango zela.

HIPOLITO.- "Gure artekoa" esan duzu?

LAURA.- Bai, gure artekoa, Ebroren iturburua bezalakoa, Fontibren. Baina pixkanaka-pixkanaka iturria agortu egin da. Tanta batzuk besterik ez dira geratzen eta euria egiten ez badu...

HIPOLITO.- Nondik asmatu duzu Ebroren iturburuaren kontu hori?

LAURA.- Burura etorri zait.

HIPOLITO.- Esaten badizut, ez didazu sinestuko.

LAURA.- Saia zaitetz.

HIPOLITO.- Guardiazibil batek gauza bera kontatu zidan amets batean.

LAURA.- Arrazoi duzu, ez dut sinesten.

HIPOLITO.- Ikusten? Horixe bera esan nahi nizun. Etorkizuna ametsetan ikusten dut. Gauza guztiak gertatu aurretik jakiten ditut.

LAURA.- Horrela ez gabiltza ondo, Hipolito, horrela ez gabiltza ondo. Lanaz ere ez zara arduratzen. Gero eta goiz gehiago ematen dituzu etxean eta kontsultara joan gabe.

HIPOLITO.- Orain ez dago lan handirik.

LAURA.- Hori ez da egia. Ramirezekin hitz egin dut eta oso kezkatuta dago: izugarri aldatu zarela esan dit, telefonoz deitu eta ez zaudela ondo esaten diozula.

HIPOLITO.- Ni ez naiz zure lanaren kontuetan sartzen. Zu ez zaitetz nirean sartu. Eta gainera, ederki dakizu zergatik geratzen naizen goiz osoan etxean.

LAURA.- Zergatik?

HIPOLITO.- Arratsalde egiten duzulako lan eta nik badut deitzerik; eta horrela badakit non zauden.

LAURA.- Goizez ere deitu dezakezu.

HIPOLITO.- Baina deitzen badut eta zu ez bazaude, erosketak egitera joan zarela esan dezakezu, eta nik ezin dut jakin erosketak egitera joan zaren ala ez.

LAURA.- Zer esan nahi duzu?

HIPOLITO.- Badakizu...

LAURA.- Ez dakit.

HIPOLITO.- Bai, badakizu.

LAURA.- Zuk badakidala uste duzu, baina ez dakit.

HIPOLITO.- Jakingo ez duzu ba!

LAURA.- Zer dakit nik?

HIPOLITO.- Biok dakiguna.

LAURA.- Solalsadi zoro hau hasi behar dugu berriz? Hobe bere horretan uztea. Horixe bakarrik falta zait. Guardiazibiliekin amets egiten hastea.

LAURA BADOA.

HIPOLITO.- Laurak garai hartan nere ametsetan agertzen ziren pasadizoak gure solasaldietan aipatzen hasi zen. Lehenengoa, Ebrori buruzko aipamen geografiko hori. Baina gehien harritu ninduen, gu ezkondata egoteari *gure artekoa* esatea izan zen. Konturatzen al zarete? "Gure artekoa". Gaixotasun benereoa balitz bezala. Arazoa nik uste baino larriagoa zen. Arazoak izen-abizenak zituen: Gilermo Morroi, protesigilea, nere seme hilaren aita... Zerbait egin behar nuen. (PISTOLA HARTU ETA GALTZEN ATZEAN EZKUTATZEN DU) Berriz ere etxera gonbidatu nuen. Gilermo Morroi?... Kaixo, Hipolito Jarama naiz... Ez, dena ongi. Aizu, nere emaztea behin eta berriro esaten ari zait ea etorriko zaren etxera afaltzera, oso atsegina zarela... Nola ez duzu ba... Bai gizona! Gainera negozioez hitz egin behar dugu. Ez, ez, hemen denak oso kontentu daude zure lanarekin. Kolega batzuek zurekin hitz egin nahi dute... Larunbatean orduan? Ederki, ordurarte ba. (ESEKI EGITEN DU) Xur horrek ezin izan zuen ezetik esan. Ordezko dentadura bat saltzeagatik edozer egingo zuen. Afarian, natural jokatu zuten, disimulu ederrean. Ondoren iritsi zen nere txanda. Azken azterketa bat egin nahi nuen, ziur egoteko. Lorategira irten ginen. Gau ederra egiten zuen.

LAURA.- A ze gau ederra.

HIPOLITO.- Bai. Eta afaria ere zoragarria izan da, Hipolito. Ze haragi-mota zen esan behar diguzu.

GILERMO.- Benetan jakin nahi duzue zer jan duzuen?

HIPOLITO.- Oso... Ez dakit.

LAURA.- Oso goxoa?

GILERMO.- Horixe bera. Ez nekien nola esan.

LAURA.- Nik ere ez dakit. Ez dit utzi sukaldean sartzen.

HIPOLITO.- Bihotza zen.

GILERMO.- Bihotza?

HIPOLITO.- Zerriarena.

GILERMO.- Ba niri oso jaki goxoa iruditu zait eta ez nuke sekula besterik jango.

LAURA.- Eta nola bururatu zaizu bihotza prestatzea?

HIPOLITO.- Erdiaroko errezetak biltzen dituen liburu batean aurkitu nuen.

GILERMO.- Oso interesgarria.

HIPOLITO.- Tira. Seguruenik galdetu nahiko didazue zertarako bildu zaituztedan hemen.

GILERMO.- Afaltzeko, ezta?

HIPOLITO.- Ez, lagun protesigilea, ez. Mesede bat egingo zenidakete?

GILERMO.- Ni, zuk nahi duzuna.

HIPOLITO.- Emaiozue musu bat elkarri.

GILERMO.- Nork?

HIPOLITO.- Zuek biok.

LAURA.- Hipolito, zer esaten ari zara?

HIPOLITO.- Denok adiskidetzeko. Afaltzera etorri zinen aurreko aldian babu baten moduan jokatu nuen. Laura eta zu lagunak izatea nahi nuke.

LAURA.- Oso lagunak gara. Ez da beharrezkoa elkarri musurik ematea.

HIPOLITO.- Egizue niregatik. Lasaiago geratuko naiz.

GILERMO.- Ni, badakizu, zuk nahi duzuna... Baina berak nahi ez badu...

HIPOLITO.- Bai, nahi du, baina nere aurrean lotsa ematen dio. Beste aldera begiratuko dut.

GILERMOK ETA LAURAK ELKARRI BEGIRATZEN DIOTE. GILERMOK BARRE EGITEN DU, EZ DAGO BATERE EROSO.

HIPOLITO.- Egin al duzue?

LAURA.- Ez, eta ez dugu egingo. Ez diot musurik emango.

HIPOLITO.- (BERAIEI BEGIRATUZ) Laura, ez idazu gau eder hau hondatu. Orain artean dena bikaina izan da...

LAURA.- Gero eta okerrago zaude, Hipolito. Ez dakit luze jasango dudan.

HIPOLITO.- Musu txiki bat.

LAURA.- Ez dut nahi.

HIPOLITO.- Oso erraza da, neska.

LAURA.- (GOGO TXARREZ ONARTUZ) Ederki, baina ez iguzu berriro molestatu.

HIPOLITO.- (BIKTIMARENA EGINEZ) Molestatu egiten dizuet, ezta? Nahi baduzue, joan egingo naiz.

LAURA.- Ez da beharrezkoa. Horrela zoriontsu bazara, musu emango diot.

LAURAK MASAILEAN EMATEN DIO MUSU GILERMORI

HIPOLITO.- (OIHUKA) Ez! (LAURA ETA GILERMO IZUTU EGITEN DIRA) Ahoan!!

LAURA.- Ahoan ez diot musurik emango jaun honi.

HIPOLITO.- Nazka ematen dizu?

LAURA.- Ez, ez. Nazka ez. Baina ez dut gonbidatuekin musuka hasteko ohiturarik.

HIPOLITO.- Orduan ez dizu nazka ematen.

LAURA.- Hipolito, ez nazazu nere onetik atera. Zer nahi duzu esatea? Esaidazu zer nahi duzun esatea eta esango dut.

HIPOLITO.- Egia nahi dut.

GILERMO.- Berak ahoan musurik eman nahi ez badit, ez naiz minduta sentituko. Ederki ulertzen dut...

HIPOLITO.- Nahi du bai. Desiatzen ari da. Bere begietan ikusten dut. Begira, titi-muturrak gogortzen ari zaizkio...

LAURAK, ERABAT HASERRE, HIPOLITO ISILDU DADIN, GILERMORI MUSU EMATEN DIO AHOAN.

LAURA.- Pozik zaude?

HIPOLITO.- Egoera honi konponbide bat eman behar diogu.

LAURA.- Zein egoerari?

HIPOLITO.- Nik astakeriarrn bat ez egiteko, zerbait dut zuei esateko.

GILERMO.- Puntu polita.

HIPOLITO.- Zuk inozoa naizela pentsatzen duzu eta horrek izugarri molestatzen dit.

GILERMO.- Barkatu.

HIPOLITO.- Aspetuta nago zure harrokeria haize horrekin. Handikeria haize horrekin.

GILERMO.- Barkatu, ez nizun iraindu nahi. Puntu polita egin duzu eta gustatu egin zait.

HIPOLITO.- Nahi duenak ez du iraintzen. Eta gauza guztiek dute muga bat, Gilermo. Baina uste dut egoera honi modu zibilizatuan aurre egiteko gauza garela.

GILERMO.- Ziur naiz horretaz.

HIPOLITO.- Nere emaztea ikusteari utzi behar diozu.

GILERMO.- Zer?

LAURA.- Baina, zer esaten ari zara?

HIPOLITO.- Entzun duzue.

GILERMO.- Behin bakarrik ikusi dut, hauxe da bigarren aldia.

HIPOLITO.- Eta azkena.

LAURA.- Zu ez zaude burutik sano.

HIPOLITO.- Ixo! pekataria.

GILERMO.- Ez dut ezer ulertzen

HIPOLITO.- “Zuen artekoa” utzi behar duzue.

GILERMO.- Ez, ez, ez; ez dut ezertxo ere ulertzen.

HIPOLITO.- Etzazu eroarena egin. Afaltzera etorri zinen lehen aldian gaia aipatu nuen eta zuk zeure burua salatu zenuen. Nere emaztea haurdun utzi zenuela esan nizun eta ez zenuen ukatu. Eta orain batere lotsarik gabe muturrean eman diozu musu.

LAURA.- Zuek biok burutik jota zaudete.

GILERMO.- Hipotesi bat zen. Zuk esan zenidan...

HIPOLITO.- Binbodítik laurehun kilometro egin nituen, hildako ume gaixo hura nere zela pentsatuz. Hori barka ezina da.

GILERMO.- Nor da Binbodí?

HIPOLITO.- Ez galdetu nola jakin dudan. Zaila da azaltzen, baina badakit eta horrek axola du.

GILERMO.-Zer axola du?

HIPOLITO.- Horixe, badakidala.

GILERMO.- Zer?

HIPOLITO.- Zuen artekoa.

LAURA.- Gure artekoa?

GILERMO.- Uste dut erabat nahasturik zaudela.

HIPOLITO.- Zeu zara erabat nahasturik dagoena, nere emaztearekin harramenak izan ditzakezula pentsatuz.

GILERMO.- Harremanak izan?

HIPOLITO.- Bai, harremanak izan.

LAURA.- Zer esan nahi du zuretzat “harremanak izatea”-k?

HIPOLITO.- Esanahi bakarra du.

GILERMO.- Era askotako harremanak daude.

HIPOLITO.- Alde batera utziko ditugu eztabaida semantikoak. Bukatu egin behar du.

GILERMO.- Hasi ez dena ezin da bukatu.

HIOPLITO.- Utzi silogismo horiek.

GILERMO.- Hori ez da silogismo bat.

HIPOLITO.- Nola jakingo duzu zuk zer den silogismo bat! Protesigile alena!!

GILERMO.- Irainik ez, eh!!

HIPOLITO.- Zer esan nahi duzu?

GILERMO.- Horixe, ez ni iraintzeko.

HIPOLITO.- Baina zu protesigilea zara.

GILERMO.- Bai, baina erabili duzun tonu hori ez zait batere gustatu.

LAURA.- Zeharo jota zaudete... Sinestezina da.

HIPOLITO.- Sinestezina. **Inurri nazkagarriak.**

LAURA.- Gilermo, hobe duzu joatea,

HIPOLITO.- Ez dut nahi zuek berriz elkar ikusterik.

GILERMO.- Ederki. Horrela zoriontsu egingo bazaitut, oso erraza da. Lehenago ere ez dugu elkar ikusi eta agindu egiten dizut aurrerantzean ez dugula elkar ikusiko.

HIPOLITO.- Betiko taktika: dena ukatzea.

LAURA.- Nahikoa da.

HIPOLITO.- Ez. Denok zintzo hitz egiteko garaia da. Egoera pertsona helduen moduan aztertu dezakegula uste dut.

LAURA.- Ez dugu ezer aztertuko. Hipolito, gaixo zaude. Orain lotara joango gara eta bihar ikusiko dugu

HIPOLITO.- Zuek pentsatzen duzue ez naizela inor. Bi hilabeteko haurdun zeundela esan zenidanean, seme hura ez zela nerea susmatu beharko nukeen. Ume izenik gabea, aitarik gabea, telebistan agertzen diren ume beltzak bezalakoa... (JOTA) Abailduta nago. Alde egin nahi dut hemendik. Beste herri batera joan nahi dut. Laura, ezin dituzu tramiteak egin ni Ruandako umeei karieak sendatzera joateko?

LAURA.- Ez dute karierik, Disenteria dute.

HIPOLITO.- (GILERMORI) Manos Unidasen egiten du lan. Arratsalde bakarrik, zeozer egiteko gauza dela sentitzeko. Baina honezkero jakingo duzu hori. Ume baten aita izateak nolabaiteko intimitatea sortu behar du amarekin. Berak seguruenik kontaktuko dizkizu bere kontuak, bere kezkak... eta zuk zenbat dentadura saldu dituzun esango diozu eta berak irribarre egin eta zapatilak ekarriko dizkizu... Garbi dago ni zuen artean traba baino ez naizela. Hobe da hemendik alde egitea. Estatu Batuetara joango naiz. Herri handia da. Han estimatuko dute nere balioa.

HIPOLITO BAZTER BATEAN ESERTZEN DA. PAUSA.

LAURA.- (DISIMULATUZ, GILERMO BESTE BAZTERRERA ERAMATEN DU)
Gerezia oso goiz loratu da aurten. Izozte baten eraginez gerezi guztiak galtzeko beldurra daukat.

GILERMO.- (ORDULARIARI BEGIRA) Egia da, oso goiz loratu da aurten. Hala ere, oso ederra dago gerezia, eta lorategia ere bai.

LAURA.- Hipolitoen meritua da. Asteburu osoa lorategian ematen du.

GILERMO.- (NAHIKOA URRUN DAUDENEAN, LAURARI ISILPEAN) Agian ausartegia naizela irudituko zaizu, baina sikiatra bati bisita egitera joan beharko zenuketela uste dut. Goimailako bat aholkatuko dizut. Nere koinatua da, baina hori ez da arazoa izango (LIBRETA BAT ATERA ETA IDAZTEN HASTEN DA). Buruan hartu zuen kolpea... oso larria izan daiteke. Zaindu egin behar duzu. Nik beti esaten dut, gogo betez bizi behar da, ze edozein momentutan... pam, kolpea buruan. Hemen dituzu helbidea eta telefonoa. (ORRIA LIBRETATIK ATERA ETA LAURARI EMATEN DIO).

LAURA.- Eskerrik asko, eta barkatu.

GILERMO.- Eutsi, emakumea, eutsi.

LAURA.- Zuk zer uste duzu, Hipolito? Aurten gereziak izango ditugu? (HIPOLITOK EZ DU ERANTZUTEN)

GILERMO.- Izozterik ez bada...

LAURA.- Ba orain haize bolada epela somatzen da.

GILERMO.- Hara, ze kasualitatea.

LAURA.- Sar gaitezen. Erosoago egongo gara.

GILERMO.- Nik, axola ez bazaizue, alde egingo dut. Berandu da.

HIPOLITOK PISTOLA ATERA ETA GILERMORI APUNTATZEN DIO.

HIPOLITO.- Jarri belauniko eta makurtu burua.

GILERMO.- Zer egin nahi duzu pistola horrekin? Erotuta zaude.

HIPOLITO.- Makurtu burua.

GILERMO.- Ez dut ezer makurtuko!

HIPOLITO.- Makurtu...

HIPOLITOK TIRO EGITEN DIO GILERMORI BURURA. KALE EGITEN DU.

GILERMO.- Tiro egin didazu!

HIPOLITO.- Nere eginbeharra da!

GILERMO.- Tiro egin didazu!

LAURA.- Hipolito, lasai, emaidazu pistola.

GILERMO.- Ia-ia jo didazu, ia-ia hil nauzu. Eta hiltzen banauzu, zer egingo dut nik, eh, dentista zikina?!

HIPOLITOK BIEI APUNTATZEN JARRAITZEN DU.

LAURA.- Hipolito, entzun, emaidazu pistola hori.

GILERMO.- Dagoeneko ez dut nahi zu nere bezeroa izatea. Eta zure amonak bidaliko dizkizu eskatu zenizkigun ordezeko dentadurak. Nik behintzat ez dizkizut bidaliko!

HIPOLITOK GERATZEN ZAIZKION BOST BALAK BOTATZEN DITU. OSO ANARKIKOKI EGITEN DU TIRO. EZ DIO INORI JO. LAURA ETA GILERMO KORRIKA ATERATZEN DIRA ESZENATIK. GATILOARI SAKA ETA SAKA JARRAITZEN DU. HARRITU EGITEN DA BALARIK ATERATZEN EZ DELAKO. PISTOLA UZTEN DU.

GUARDIAZIBILA SARTZEN DA

GUARDIA.- Dokumentazioa, mesedez.

HIPOLITO.- Ez, berriz ez.

GUARDIA.- Zein asmo duzu?

HIPOLITO.- Ez dut ezer esango.

GUARDIA.- Zintzo jokatuko dut zurekin. Badakigu ospe handiko hortz protesigile bat hiltzeko asmoa duzula. Salatu egin behar zaitut. Ezin dut besterik egin.

HIPOLITO.- Zergatik?

GUARDIA.- Ezin zara hortik ibili jendea hiltzen.

HIPOLITO.- Nik ez dut inor hil.

GUARDIA.- Salaketaren benetako helburua prebentzioa da.

HIPOLITO.- Ez hasi berriro.

GUARDIA.- Nere eginbeharra da.

HIPOLITO.- Ez dut uste zu guardiazibila zarenik ere.

GUARDIA.- Ez nazazu haserretu, eh? Dokumentazioa.

HIPOLITO.- Dokumentazioaren kontu hau aspergarria egin zait dagoeneko. Lehen ametsean kendu zenidan eta, nik dakidala, ez didazu itzuli. Ulertzen dut zure eginbeharra dela eta hori guztia baina ezin dugu horrela jarraitu.

GUARDIA.- Zintzo jokatuko dut zurekin. Hamabi urte nituenean, gure aitak komisaldegira eramán ninduen nortasun agiria lortzeko tramiteak betetzera. Hango ordena, kontrola eta kaosa menperatzeko sentsazioak erakarri egin ninduen. Sistema haren bidez, pertsona bakoitza gizabanako bihurtzen zuen. Denok berdinak ginen eta denok ginen norbait. Ni harro nengoen nere nortasun agiriaren zenbakiaz. Arratsalde osoa eman nuen buruz ikasten. Zenbaki hura neu nintzen. Mundu osoan beste inork ez zuen nere zenbakia. Zuk ez dakizu zer den hori hamabi urteko mutiko batentzat. Orduan jakin nuen etorkizunean nere bizitzak harreman zuzena izango zuela dokumentazio kontuekin.

HIPOLITO.- Bokazioa.

GUARDIA.- Bai, horixe bera. Nere semeak hamabi urte bete zituenean, komisaldegira eramán nuen nortasun agiria ateratzera. Atarian ginela, semeak galdetu zidan: "aita, zer egiten dugu hemen?". "Zu nortasun agiria ateratzera etorri gara" erantzun nion pozik. Eta berak berriz: "Badaukat, postaz bidali didate". Poltsikotik kartera atera eta bere nortasun agiria erakutsi zidan. Konturatzen al zara?

HIPOLITO.- Bai, konturatzen naiz.

GUARDIA.- Gaur egun aita batek ez du aukerarik ezta... Eta semea izatea bezalakorik ez dago munduan. Nortasun agiriaren zenbakia bezalakoa da. Norbanako egin eta betikotzen zaitu. Mundu honetan ez dugu ezer uzten, gure semeak izan ezik. Zertarako ematen ditugu horrenbeste urte hemen? Zer utziko duzu zuk Lurrean? Enpaste batzuk eta nerbio batzuk desbitalizatuta? Hortz protesigile bat hilda? Semerik ez baduzu **indokumentatua** zara. Baina konfidantza izan behar da. Horixe da etorkizuna. Laster egingo dugu topo berriro, motorista eta orduan ikusiko dugu dokumentazioa ematen didazun ala ez. Kontuan hartu Estatu Batuetan sartzeko oraindik beharrezkoa dela pasaportea.

BIEK BATERA KANTATZEN DUTE ESTATU BATUEN ERESERKIA. AMAITU ETA GERO, GUARDIAZIBILAK ALDE EGITEN DU.

HIPOLITO.- Esnatu nintzenean erabat galduta nengoen eta ez neukan batere gogorik azken amets horren esanahia bilatzeko. Lau egun eman nituen ospitalean. Enzefalogramak eta galdera txoroak egin zizkidaten. Gilermo Morroik salaketa jarri nahi zidan poliziaren komisaldegian, baina bere koinatuak konbentzitu egin zuen, ez zuela ezer irabaziko. Ondoren etxean geratzera behartu ninduten. Beraien ustez, ni gaixo nengoen. Pilulak eman eta ohean geratu behar nuela zioten. Nahi zutena egiten uzten nien. Etxean geratu behar izatea aitzakia borobila zen Laura kontrolatu ahal izateko. Nik ezin nuen dorre batean giltzapetu. XX. mendean gaude.

LAURA SARTZEN DA

LAURA.- Bi aste eman dituzu hemen giltzapetuta. Erabaki bat hartu behar dugu. Dagoeneko ez dakit zer egin zuri burutik kentzeko gizon barregarri horrekin engainatzen zaitudala.

HIPOLITO.- Ezin duzu besterik egin. Badakit. Ziur naiz.

LAURA.- Zer egin dezaket ez dela egia frogatzeko? Esan eta egingo dut.

HIPOLITO.- Ez dut frogarik behar.

LAURA.- Ez da nere gustukoa. Nazkagarria da.

HIPOLITO.- Ez hitz egin horrela zure semearen aitaz.

LAURA.- Ez nazazu haserretu lelo horrekin. Izan buru piska bat. Barregarria da zu Gilermo bezalako gizon batengatik jeloskor egotea.

HIPOLITO.- Zeloak ezin dira kontrolatu, irrazionalak dira, aitortzen dut. Baina horren nabarmena denez, zer egin dezaket?

LAURA.- Irrazionala zeu zara! Horixe da arazoa!

HIPOLITO.- Ederki. Ados. Froga bat. Umearen gorpua lurpetik aterako zenuke aitatasun-froga bat egiteko?

ETENA

LAURA.- Hipolito, uste dut guretzat hoberena izango dela, zu instituzio batera joatea. Han lagunduko dizute. Zintzo jokatuko dut zurekin. Dagoeneko hitz egin dugu horretaz.

HIPOLITO.- Nork hitz egin du horretaz?

LAURA.- Cruz doktoreak eta nik.

HIPOLITO.- Cruz doktorea?

LAURA.- Zure sikiatra.

HIPOLITO.- Gilermoren koinatua.

LAURA.- Berak esan dit udalak instituzioak dituela zu bezalako jendearentzat. Erosoago egongo zara eta atsedean hartu ahal izango duzu. Hemen, etxean, txarrera egin dezakezu. Instituzio horretan lagundu ahal izango dizute eta behar bezalako tratamendua jasoko duzu. Cruz doktorea sikiatra da eta ederki daki zer esaten duen. Entzuten al didazu?

HIPOLITO.- Ederki asko.

LAURA.- (BERE BURUARI) Kaka zaharra. (HIPOLITORI) Barkatu berriz esatea. Laguntzen ez baduzu norbaiti deitu beharko diot zurekin joan dadin. Zuretzat ez da ona hemen giltzapeturik egotea... Nik ulertzen dizut. Badakit zer den bakarrik sentitzea, baina ez duzu amore eman behar. Beti dago itxaropen bat. Nor bere baitan ixtea ez da erantzuna. Ulertzen duzu esaten dizudana...?

HIPOLITO.- Bai.

LAURA.- Ni ezin dut egun osoa pasa zutaz arduratuta.

HIPOLITO.- Zuk beste konpromezu batzuk dituzu.

LAURA.- Ez da hori, ederki dakizu.

HIPOLITO.- Eta nork zainduko du nere lorategia?

LAURA.- Lorazain batek.

HIPOLITO.- Lorazain batek...

LAURA.- Hiruzpalau aste bakarrik izango dira.

PAUSA

HIPOLITO.-Ederki, joango naiz

LAURA.- Ados zaude?

HIPOLITO.- Bai (IKUSLEEI) Jeloskortasuna, kontrolatzerik ez badago ere, sentimendu doilorra da. Eta Bianako Printzea Karlos Hirugarrena Prestuak gartzeleratu egin bazuen, logikoa zen ni Udalaren instituzio batera eramatea. Handik bi egunera eraman ninduten. Erizain batek egin zidan harrera.

HIPOLITO ETA LAURA BATERA IRISTEN DIRA INSTITUZIORA. ERIZAINA
-AMETSETAKO GUARDIAZIBILA DA- SARTZEN DA.

ERIZAINA.- (ADEITSU) Dokumentazioa, mesedez.

HIPOLITO.- Eta orain zergatik nahi duzu dokumentazioa?

ERIZAINA.- Instituzio honetan sartzeko fitxa bete behar da eta horretarako dokumentazioa behar dut.

HIPOLITO.- (LAURARI, ISILPEKA) Guardiazibila da.

LAURA.- Zein guardiazibil?

HIPOLITO.- Ametsekoa

LAURA.- Zein ametsetakoa?

HIPOLITO.- Askotan agertzen da.

LAURA.- Emaiozu nortasun agiria, mesedez.

HIPOLITO.- (AHOTS GORA) Ez al duzu ulertzen? Guardiazibila da.

LAURA.- Bai, noski.

LAURA ETA ERIZAINA ATERA EGITEN DIRA

HIPOLITO.- (IKUSLEEI) Ez da harrizkoa beraiek pentsatzea oreka galdua nuela. Ulertzen dut. Oso zaila da amets baten konplexutasunaz bapatean jabetzea. Orain hiru hilabete ekarri ninduten instituzio honetara. Denbora tarte hau, liburutegian ametsen interpretazioaz aurkitu ditudan liburu guztiak irakurtzen eman dut. Irakurketa hauek baieztatu egin dituzte nere susmoak. Hemengo sikiatren arabera, fantasiak besterik ez ditut esaten. Iragana neure erara moldatzen dut. Nere ametsetako oroitzapenak moldatu egiten ditut egungo gertaerekin bat etortzeko eta horrela pentsatzen dut nere iragarpenak bete egiten direla. Beren teoriaren arabera, ezin izan nuen gainditu nere semearen heriotza eta nere subkontzienteak estrategia sinestezin bat asmatu zuen nik neure burua konbentzitzeko seme hura ez zela nerea, Gilermo Morroirena baizik. Beraiek baieztatu egiten dute nere amets iragarleak, nere emaztea erditzen ari zen bitartean ni Binbodín egoteaz errudun ez sentitzeko sortu dudana estrategia bat besterik ez direla. Bere garaian ikasi izan balute, beste iritzi bat izango zuten. Nirea bezalako kasu asko bildurik daude liburuetan. Nik uste dut hemengo sikiatra guztiak kopiatuz aprobata zutela karrera. Gainera, denek teoria bera defendatzen dute. Hori dela eta denek ikaskide berari kopiatu zioten, seguru. Bai, eta bera da liburuak irakurri zituen bakarra eta gaur egun Estatu Batuetan dagoena, ikaskideez barre egiten, Yaleko unibertsitatean eskolak ematen eta bere autoa Window garbiketa-tunelen katean garbitzen... Laurak astero egiten dit bisita. Gauza bakoitzari bere balioa eman behar zaio. Instituzio hau edozein lekutatik urrun dago. Gaur etortzekoa da. (ORDULARIARI BEGIRATZEN DIO). Beti garai honetan iristen da. Hemen dago.

LAURA SARTZEN DA.

LAURA.- Kaixo, Hipolito, zer moduz zaude?

HIPOLITO.- Hobeto.

LAURA.-Eseriko gara?

HIPOLITO.- Nahi duzu bezala.

ESERI EGITEN DIRA

LAURA.- Eskuminak nere amaren partez.

HIPOLITO.- Carmen anderea. "Cuando tuvo que respirar no le salió, pobrete". Ikusi al duzu nola hazi diren hortentsiak?

LAURA.- Oso ederrak dira

HIPOLITO.- Ur pila behar dute hortentsiek. Loretan daude...

LAURA.- Etxeko lorategia zuk zaintzen zenuenean askoz ere ederragoa zegoen.

HIPOLITO.- Pazientzia handia behar da lorategia zaintzeko.

LAURA.- Ba al dakizu nork deitu duen etxera?

HIPOLITO.- Ez

LAURA.- Percyk. Amerikarra, gogoratzen zara?

HIPOLITO.- Bai.

LAURA.- Ni ez nengoen. Mezu bat utzi du.... Sendagileak esan dit hobeto zaudela.

HIPOLITO.- Bai, hala izango da.

LAURA.- Badakit gertatzen zaizun guztia ez dela zure erruagatik. Badakit istripuaz ez zarela erabat osatu.

HIPOLITO.- Litekeena da.

LAURA.- Eta hobeto zaudenez, hitz egiteko une egokia dela uste dut. Ez nizun esan nahi berak baimena eman arte. Cruz doktoreak alegia. Berak uste du egunen batean jakingo duzula eta beraz hobe dela neuk esatea.

HIPOLITO.- Esaidazu ba.

LAURA.- Seguruena gaiztoa naizela pentsatuko duzu, baina gauza hauek gertatu egiten dira. Dagoeneko ez naiz etxean bizi.

HIPOLITO.- Ez?

LAURA.- Ez.

HIPOLITO.- Eta non bizi zara, ba?

LAURA.- Beste etxe batean bizi naiz. Beste gizon batekin.

HIPOLITO.- Eta lorategia?

LAURA.- Zaintzen dute.

HIPOLITO.- Ikusi egin nahi nuke nola zaintzen duten

LAURA.- Entzun al duzu esan dizudana?

HIPOLITO.- Bai, Gilermorekin bizi zarela.

LAURA.- Bai.

HIPOLITO.- (TXARTELA EMATEKO KEINUA EGINEZ). Gilermo Morroi, Hortz protesigilea. Izugarria da!

LAURA.- Eta haurdun nago.

HIPOLITO.- Inozo horrek haurdun utzi zaitu?

LAURA.- Bai.

HIPOLITO.- Amets iragarleak bete behar diren arren, inmorala da gizon horrek espermatozoideak izatea.

LAURA.- Nik maite zaitut, Hipolito, badakizu, baina horrelako gauzak gertatu egiten dira.

HIPOLITO.- Ez, ez. Ez dira benetan gertatzen. Nik uste dut une batetik bestera esnatu egingo naizela.

LAURA.- Ez, ez zara esnatuko. Ez da amets bat.

HIPOLITO.- Ba hala ematen du.

LAURA.- Ez da, Hipolito.

HIPOLITO.- Froga ezazu.

LAURA.- Zer?

HIPOLITO.- Hau ez dela amets bat. Froga ezazu ni hemen, instituzio honetan egotea, eta zu zure sabelean hortz protesigile bat hazitzea ez dela amets bat.

LAURA.- Nola nahi duzu frogatzea horrelako zerbait?

HIPOLITO.- Ezin duzu frogatu.

LAURA.- Beno, hemen nago. Ez dakit... ez da amets bat. Ukitu nazazu.

HIPOLITO.- Ukitu... Ametsetan ere ukitu daiteke. Ametsetan dena benetako bizitzan bezala izaten da. Zoaz. Esnatu egin nahi dut.

LAURA.- Iritsi berria naiz.

HIPOLITO.- Berdit zait. Iratzargailua jotzekotan dago. Despierta, pobrete, despierta, pobrete.

LAURA.- Hipolito.

HIPOLITO.- Segituan desagertuko zara. (BILA HASTEN DA) Iratzargailua aurkitu bezain laster... Itzali bezain laster.

LAURA.- Zuk ulertzea nahi nuke.

HIPOLITO.- Ospa!!

LAURA BADOA. ERIZAINA DATORRELA IKUSTEN DU. HIPOLITOK EROARENA EGITEARI UZTEN DIO.

ERIZAINA.- Adixkidea, emakumeek disgustuak bakarrik ekartzen dituzte.

HIPOLITO.- Ba al dakizu zertara etorri den? Beste batek haurdun utzi duela esatera.

ERIZAINA.- Orduan ez zaitut zoriondu beharko, ezta?

HIPOLITO.- (PENTSATU EGITEN DU) Aizu, nik ere izan dut zerikusirik, (ESERI EGITEN DIRA) Ba al dakizu nola ezagutu nuen Laura?

ERIZAINA.- Ez.

HIPOLITO.- Bera komertziala zen nik inbertsio-fondoak nituen banku batean eta kontu korrante bat zabaltzeko deitu zidan.

HIPOLITO.- Agian ordu eta erdi eman genuen telefonoz hizketan. Hiru urte pasatu eta gero, nahikoa denbora nere ustez, ezkondu egin ginen.... Ni oso zera nintzen... oso razionala. Hiru urte: nahikoa denbora. Nere eginbeharra zela pentsatzen nuen. Nitaz ez zuten besterik espero. Seguruenik horregatik, ahalmen bat nuela jakin nuenean, ez nintzen kontrolatzeko gai izan. Dena horren zientifikoa denez... zientifikoa ez den zerbait aurkitzen dugunean burua nahastu egiten zaigu.

ERIZAINA.- Normala. Berak banku horretan jarraitzen du oraindik?

HIPOLITO.- Ez. Orain Manos Unidasen egiten du lan. Arratsaldez bakarrik. Oso sentibera da. Eragina nerea izan zela pentsatu nahi dut. (AHORA BEGIRATZEN DIO). Ea, utzidazu ahoa begiratzen. (ERIZAINAK UTZI EGITEN DIO) Enpaste bat erortzekotan duzu.

ERIZAINA.- Horixe da horrelako leku batean lan egitearen abantaila. Haginlariak... barkatu, estomatologoak...

HIPOLITO.- Sendagile estomatologoa, zuzen zaude.

ERIZAINA.- (IKUSLEAK SEINALATUZ) Arotzak, modistak, arkitektoak. abokatuak, epaile bat... Garrantzi handiko jendea. Ah, Hipolito, abisu bat ematera etorri naiz. Madrileko Amerikako enbaxadatik deitu dizute.

HIPOLITO.- Percy izango da, isilpeko agente bat, nere laguna.

ERIZAINA.- Horixe bera. Percy ez-dakit-zer.

HIPOLITO.- Ze iritzi duzu nitaz, erizain jauna?

ERIZAINA.- Nik ez dut iritzirik.

HIPOLITO.- Zer dakizu nere kasuaz?

ERIZAINA.- Seko jota zaudela.

HIPOLITO.- Eta zehatzago?

ERIZAINA.- Traumatismo kraneoentzefalikoa izan zenuen eta zure emazteak galdu egin zuen espero zenuten haurra. Orduan zure neuronak nahasten hasi ziren eta egoera honetara iritsi zara.

HIPOLITO.- Eta besterik?

ERIZAINA.- Amets iragarleak dituzula uste duzu. Badirudi ez duzula desberdintzen zer den ametsa eta zer ez. Baina adixkidea, zeinek desberdintzen ditu benetan?

ERIZAINA.- Eta desberditzen dituztela uste dutenek arrazoia dute? Nork daki? Tira... Zu, zure kontuetara.

HIPOLITO.- Erizain ona zara. Gustuko zaitut.

ERIZAINA.- Baina besteei paseoa ematen utzi behar diezu. Ezin dituzu eserita eduki, zure kontuak entzuten. (IKUSLEEI) Ibili egin behar duzue (HIPOLITORI) Ulertu al duzu?

HIPOLITO.- Nere historia da. Kontatu egin nahi nuen eta beraiek entzun nahi zuten. Beraiek ez dute uste nirea inozo baten historia denik.

ERIZAINA.- Beraiek ere inozoak dira. Horrexegatik zaudete denok hemen, arraoia!!

HIPOLITO.- Gustuko zaitut, erizaina. Benetan.

ERIZAINA.- (IKUSLEEI) Tira, joan zaitezte beste leku batera paseoa ematera. Ospa!! (ERIZAINAK HIPOLITO ERAMAN NAHI DU) Goazen.

HIPOLITO.- Momentu bat. Goiz da oraindik. Utzidazu azken gauza bat esaten.

ERIZAINA.- Merienda hartzeko garaia da.

HIPOLITO.- Erizain ona zara. Utzidazu azken gauza bat esaten.

ERIZAINA.- Esan azken gauza bat.

HIPOLITO.- (IKUSLEEI) Gaur hau guztiaren berri ematearen arrazoia hemen dago. (EGUNKARI BAT ERAKUSTEN DU) Hau gaurko egunkaria da. Azaleko berriak dioenez, Vietnameko beterano batek hogeitasei lagun hil ditu Bismarckeko McDonalds batean. Bismarck Dakotako hiriburua da. (ERIZAINARI) Gaurko egunkaria da. (BEGIEN AURREAN JARTZEN DIO).

ERIZAINA.- (EGUNKARIARI BEGIRA) Hogeitasei lagun... Alferrik da, nahiz eta ahalik eta gehienak giltzapetu, beti egongo dira gehiago kanpoan barruan baino.

HIPOLITO.- Errealitatea Dakotan dago. (IKUSLEEI) Dakotarik bada, lagunok!!

ERIZAINA.- Goazen, gaur meriendarako izozkia jarri dutela uste dut.

HIPOLITO.- Nahiago dut beikon bokadilloa. Beikon beroa eta karraskaria, **intendente**.

ERIZAINA.- Mmmmm. Izugarri gustatzen zait beikona.

HIPOLITO.- Banekien.

ERIZAINA.- Ah, eta gogora ezazu delako Percy horri deitu behar diozula. Oso garrantzitsua dela esan du. Deitzen ez badiozu bera etorriko dela. (ERIZAINAK EGUNKARIA ZAKARRONTZIRA BOTATZEN DU)

HIPOLITO.- Estatu Batuak herri handia da. Amets amerikarra. Han amets guztiak errealitate bihurtzen dira. Ba al dakizu pasaportearen hemen dudana?

ERIZAINA.- Hala uste dut.

HIPOLITO.- Estatu Batuetan sartzeko oraindik beharrezkoa da pasaportearen.

ERIZAINA.- (UNE BATEZ BEGIRATZEN DIO ETA BEHIN BETIKO ERAMAN BAINO LEHEN, IKUSLEEI) Tira. Denok merienda hartzerako.

BELTZERA